

394 zenbakia. 2000ko urtarrilaren 21a.  
JARDUN ELKARTEA


Bergarako astekaria

# Berrigara

## Langile gazteak

Lanbide ikastetxeetatik  
lan merkatura zuzenean

# OPEL



TALLERES **OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).  
Tf: 943 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK



Plastikozko ontziak



Latak



brickak



# ...zure esku dago

“Buelbaka - Buelbaka Birziklatuz”

**D**atozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

**E**ta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zabortegeiak ere denbora luzegorako izango ditugu.

**Gutxitu hondakinak,  
berriz erabili eta birzikla  
itzazu  
Guztion mesedetan  
izango da**



# Gotzaien zeregina

Xabier Azkoitia / Apaiza



Ez al da arraro samarra, Eliza presentzia galtzen ari dela esaten dugun garai honetan, edo beste batzuek dioten bezala, fede ezak jotako gizarte baten sartzen ari garen garaian, edo fedeari dagokion edozer gauzari opakoa den gizarte honetan, gotzain baten aldaketak hainbat lerro, neronenak tartean, sortzea?

Era berean, fedea eta Eliza gizakiaren arlo pribatura mugatu egin behar den zerbait dela dioten guzti horiek, eta ondorioz, pertsona bakoitzaren intimitatean, inongo eragin eta hitz sozialik gabe geratu egin behar dela defendatzen dutenek, nola gatatatu dezakete hainbat leku eta denbora, "sozialak eta publikoak" diren komunikabideetan, inongo eraginik izan beharko ez lukkeen zerbaitetan?

Ez dut uste nire lana denik doan gotzainaren panegirikoa egitea, edo datorrenaren alabantzak abestea. Aldiz, ahaleginduko naiz argitzen nondik irakurri, entzun, eta hala nahi izan ezker, epaitu dezakegun beraien egitekoa. Horretarako, hainbat alditan aitatu eta neurri berean hain ezezaguna den Batikano II.ak dionera begiratu beharko dugu halabeharrez.

"Lumen Gentium" Konstituzioak dio, gotzainek, Apostoluen oinordeko direnez, jasotzen dutela gizon emakume guztiei irakasteko eta Ebanjelioaren Berri Ona predikatzeke misioa. Hori egiteko hiru ofizio

gutela. Lehenengoa irakasteko ofizioa, santifikatzearena bigarrena eta beraien elizak gidatzearena hirugarrena.

Baina horrekin batera, Kontzilio berean badago beste konstituzio bat, "Gaudium et Spes" deiturikoa, bere gaia elizaren betebeharrak zein den gaurko munduan lantzen duena, eta bere lehenengo puntuan zera dioena: "Gure garaiko gizakien pozak eta itxaropenak, tristurak eta nekeak, bereziki behartsu eta sofrizten ari direnenak, Jesusen jarraitzaileen pozak eta itxaropenak, tristurak eta nekeak dira. Horregatik Eliza gizatiarekin eta bere historiarekin solidario sentitzen da era erreal batean". Eta hori esaten duen bezala, ikusi egiten du badaudela arazo batzuek "ur-

gentek" direnak, hain zuzen, familia, kultura, bizitza politikoa, ekonomiko eta soziala, solidaritate internazionala, eta bakea.

Hau guztia hala izanik, Elizari, kristauetara, beraz, artzain direnei, halabeharrezkoa egiten zaigu gure iritzia izaten ahalegintzea, eta batzuetan ematea ere, bizi dugun errealitateari buruz. Ez hori bakarrik, ahalegintzea ere, denen zerbitzura egongo diren ekintzak egiten eta sortzen.

Kontzilioa bukatu eta handik 7 urtera gotzain egin zuten Jose Maria Setienek egitekoa epaitzerakoan edo baloratzerakoan, ez dut uste inolaz ere ahaztu egin behar dugunik zer den Eliza, zein den bere egitekoa munduan eta zein egiteko esaten dien kontzilioak gotzainei bete behar dutela. Jakinik, gainera, kontzilioak berak eskatu egiten digula gizaki guztien arteko elkarrikeria bultzatzea, inor kanpoan utzi gabe, ezta Elizaren aurka edo jazarri egiten dutenak ere.

Estilo batekin edo bestearekin, hori da gotzainei egitea eskatu behar dieguna, eta uste dut, urte hauetan, gure gotzaina egiten saiatu, eta neurri handi batean ere, lortu egin duela; eta hori da hurrengoari ere egiten saiatu dadila eskatu behar dioguna.

Juan XXIII.ak zioen bezala, beharrezkoak diren gauzetan izan dezagula batasuna, zalantzarik ez diren askatasuna, eta egoera guztietan maitasuna. <

*"Elizari, kristauetara, beraz, artzain direnei, halabeharrezkoa egiten zaigu gure iritzia edukitzen ahalegintzea, eta batzuetan baita ematea ere, bizi dugun errealitateari buruz"*

barruan



**Pepe Romo**

Psikologoa

*"Estresaren eta antsietatearen arazoak okerrera egin du azken urteotan"*

8.



**Antonio Merino**

Korrikalaria

*"Txapela janzteko gogoa daukat Muskizen izango den Euskadiko kros txapelketan"*

23.



**Gerardo Mondragon**

Jubilatua

*"Ondo pasatzen dot zaharren artian, baiña gaztiekin be ondo konpontzen naiz"*

29.

# AGENDA ETA ZERBITZUAK

## Farmaziak

### Eguakitza 21:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Zapatua 22:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Domeka 23:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Astelehena 24:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Martitzena 25:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Eguaztena 26:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Eguena 27:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

## Ogia

**Domeka 23:** Mizpildi.

## Eguraldia



### Zapatua 22

Azken egun hauetan bezala, temperatura freskoak izango ditugu eta hodeiak eta urdin-guneak tartekatuko dira. Eurria ere egin dezake.

*Igeldoko meteorologi behatokia*



### Domeka 23

Zapatuan bezala, iparraldetik datozen haize hotzak nagusituko dira eta mendi gailurretan elurra egin dezake. Erreka ondoetan, izotza.

## Ilargiaren aldiak



Ilbete: urtarrilak 21



Ilbehera: urtarrilak 28




Ilberri: otsailak 5




Ilgora: otsailak 12

## Eguzkia

*Domeka, urtarrilak 23*



Sortu: 08:34



Gorde: 18:23

## Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate  
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 13</b>	7,5	2,5	-	8	-2	0,3
<b>Eguakitza 14</b>	5	3	-	9	2	-
<b>Zapatua 15</b>	5	3,5	-	12	1	-
<b>Domeka 16</b>	8,5	1,5	-	6	0	0,3
<b>Astelehena 17</b>	4	1	-	7	3	-
<b>Martitzena 18</b>	2	1	-	6	-1	-
<b>Eguaztena 19</b>	3	1,5	-	8	5	-

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 14

10-27-29-37-38-47 (osag.49/itz.3)

#### Astelehena 17

4-6-8-13-32-49 (osag.2/itz.1)

#### Martitzena 18

7-21-32-35-42-44 (osag.48/itz.3)

#### Eguaztena 19

3-5-7-12-25-31 (osag.23/itz.9)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 15

5-7-10-30-37-47 (osag.25/itz.1)

#### Domeka 16 Saritzarra

4-35-38-39-40-49 (osag.28/itz.4)

### ONCE

**Eguakitza 14:** 34.439 (073 seriea)

**Domeka 16:** 82.946 (010 seriea)

**Astelehena 17:** 81.830

**Martitzena 18:** 37.525

**Eguaztena 19:** 55.512

### BESTE BATZUK

**Lokatza:** Bizikleta: 5.379

Afaria: 7.913

**Raul Luqueren aldeko zozketa:**

A: 22.159 / B: 19.372 / C: 13.105

Ordezkoak: 08.252 eta 13.216



**Nagore Iñurrategi**  
Urtarrilaren 21ean 22 urte.  
Urte askotarako! Lagunak.



**Alexander Narvaez**  
21ean 16 urte.  
Urte askotarako! Gurasoak eta Idoia.



**Iratxe Aiestui**  
Urtarrilaren 27an 8 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak.



**Jokin Alfaro**  
Urtarrilaren 24an 3 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak eta Peio.



**Elene Sasieta**  
Urtarrilaren 22an 4 urte. Urte askotarako! Aita, ama eta Ariana



**Laxeia Larrañaga**  
Urtarrilaren 23an 15 urte.  
Urte askotarako! Julen eta Nerea.



**Petra Juaristi**  
24an urtebetetzea.  
Urte askotarako! Seme-alabak eta bilobak.



**Felix Laskurain**  
Urtarrilaren 26an urtebetetzea.  
Urte askotarako! Arreba eta familia



**Purita Barrutia**  
Urtarrilaren 27an urtebetetzea.  
Urte askotarako! Illobak eta familia.

## zorion agurrak



**Erik Polanco**  
Urtarrilaren 23an 7 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak.



**Larraitx Agirre**  
Urtarrilaren 22an 17 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak.



**Beñat Uribesalgo**  
Urtarrilaren 25ean urtebete. Urte askotarako! Etxekoak, batez ere, Karmele.



**Garoa Manzisidor**  
Urtarrilaren 26an 5 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak.



**Ainhoa Carazo**  
Urtarrilaren 23an 25 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak.



**Paloma Nuñez**  
Urtarrilaren 21ean 5 urte.  
Urte askotarako! Amama.



**Amaia Etxaniz**  
Urtarrilaren 22an urtebete. Urte askotarako! Gurasoak eta familiakoak.



**Jon Patxi Aiestui**  
25ean 10 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak eta Alex, Andoni eta Izaskun.

Hurrengo alean,  
**URTARRILAREN 28a eta OTSAILAREN 3a**  
bitartekoen zorion agurrak  
argitaratuko ditugu.

ESKER ONA

## Jose Ramon Igarza Agiriano

Bergaran hil zen  
2000ko urtarrilaren 14an,  
48 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

## Manolita Saizar Alberdi Reyes Corcostegui Villar

Bergaran hil ziren  
1999ko abenduaren 28an eta  
2000ko urtarrilaren 1ean,  
83 eta 82 urte zituztela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

## Jesus Larrañaga Iturrino

Bergaran hil zen  
1999ko abenduaren 29an,  
78 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

## Benita Alberdi Mazmela

Antzuolan hil zen  
1999ko abenduaren 28an,  
78 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKELA

## Juan Maria Mendizabal Garmendia

Bergaran hil zen 2000ko urtarrilaren 18an, 51 urte zituela.

*Altzasu elkarteko kideek euren  
dolumina adierazi nahi diete  
bildakoaren emazte eta seme-alabei*



Altzasu elkarteko kideak

URTEURRENA

## Concepcion Arizaga Larreategi

Lehen urteurreneko meza  
datorren asteko domekan,  
urtarrilak 30, goizeko 10:30etan,  
Uberako Paulo Deunaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### jaiotakoak

**BERGARA**

**Amaia Macias Umerez**

Urtarrilak 11

**Aiora Etxezarreta Urmeneta**

Urtarrilak 13

### hildakoak

**BERGARA**

**Manuela Murgiondo Larrañaga**

Urtarrilak 12, 81 urte

**Juan Aristimuño Kortabarria**

Urtarrilak 12, 61 urte

**Jose Maria Azkarate Lete**

Urtarrilak 13, 81 urte

**Jose Ramon Igarza Agiriano**

Urtarrilak 15, 48 urte

**Isabel Maiztegi Agirre**

Urtarrilak 16, 82 urte

**Angel Larraza Manso**

Urtarrilak 16, 85 urte

**J. Maria Mendizabal Garmendia**

Urtarrilak 18, 51 urte

**Paula Gallastegi Gabilondo**

Urtarrilak 18, 100 urte



**Inti Fraile**  
Urtarrilaren 22an  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Sonia Varela**  
Urtarrilaren 23an  
19 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta anaia.



**Irati Rodriguez**  
Urtarrilaren 23an  
4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Markel Garmendia**  
Urtarrilaren 24an  
2 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Andoni Mujika**  
Urtarrilaren 22an  
3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Ramon Polanco**  
25ean 38 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak; batez ere,  
Irati eta Erik.

## ANTZERKIA

► **Magia eta umorea**  
**Francisco Cuestarekin** gaur,  
egukitza, 22:00etan Go-Jamen.

## MUSIKA

► **Jam.** Datorren zapatuan,  
hilak 29, **Cockney rejects**  
22:00etan eta hilaren 30ean  
**Petti**, 21:30etan Go-Jamen.

► **Benito Lertxundi** gaur,  
egukitza, 22:30etan Oñatiko  
Zubikoa Kiroldegian.

► **Bide ertzean** bihar,  
zapatua, Elgetako Gaztetxean  
22:30etan. Kontzertuaren  
aurretik **"Yo: no soy esa"**  
Idoia Sanchezen eskutik  
antzerki emanaldia izango da.

► **Joseba Tapia taldearekin**  
domekan, hilak 23, 19:30etan  
Eibarko Portalea aretoan.

## ERAKUSKETAK

► **Antton Arrillagaren**  
margoak Kultur Etxean,  
domekara arte.

► **Pello Alberdiren** margoak  
Nahikari tabernan.

## LEHIAKETAK

► **Justo Garate Arriola**  
**beka.** 1999ko deialdia histo-  
riako gaii zuzenduta dago.  
Ikerketa-lana euskaraz burutu-

## ANTZERKIA

### ¡Cómeme el punto!

**Non:** Novedades aretoan  
**Noiz:** gaur, egukitza, 22:30etan  
**Sarrera:** 1.000 PTA; 750 PTA langabetuendako  
eta 26 urtetik beherakoendako

Legaleon-T taldearen "¡Cómeme el punto! (o chupismi de flesbon)" antzezlan-  
na ikusteko aukera izango da gaur gaue-  
an. Talde irundarra 1987an sortu zen eta  
bere lanen artean "El silencio de la xigu-  
las" (1994), "Mujeres al rojo vivo" (95) edo  
"Ubú" (1996) nabarmendu daitezke. Eu-  
ren azken produkzio honetan Esperanza  
Lopez, Mila Espiga eta Mirari Irurzun dira  
aktore nagusiak. Iaz  
estreinatu zenetik har-  
rera ona jaso du, gaz-  
teen artean batez ere  
eta antzezlari berritzaile  
eta esperimentalak  
dugu kritikaren arabe-  
ra. Hiru interpreteek  
jendeak buruan dituen  
baina azaltzen ez di-  
tuen sexuari buruzko  
ideiak planteatzen di-  
tuzte, ikuslego proba-  
katu nahian eta umo-  
rea ardatz nagusia de-  
larik. Gidoia lantzeko,

besteak beste, Janis Joplin, Thomas Bern-  
hart, Martirio, Linda Jaivin edota Mila Es-  
piga eta Esperanza Lopez beraren testue-  
tan oinarritu dira.

Antzezlari feministatza jo izan da Le-  
galeonen hau. Ana Pérez zuzendariaren  
arabera, "zalantzaren aurrean, hobe da  
neurria gaintzea. Ez dadila ezer falta, so-  
bra dadila. Zitzuan irten, lehertu. Dena da  
gutxi, eta ezer ez da nahikoa. Gure kondi-  
zioari buruz barre egin nahi izan dugu eta,  
aldi berean, gizonezkoen inguruko erre-  
flesioa plazaratu nahi genuen". Testuare-  
kin batera, zuzeneko musika eskainiko da  
aktoreetako batek biolina joko baitu eta,  
horrez gain, grabatutako musika ere izan-  
go da antzezlari laguntzeko. Emanaldia  
gazteleraz izango da.



Argazkian, gaur gaueko antzezlari irudi bat.

ko da eta bekaren diru zenba-  
tekoa 1.000.000 pezetakoa  
izango da. Bekaren iraupena  
11 hilabetekoa izango da.  
Eskabideak eta gainontzeko  
agiriak aurkezteko epea otsai-  
laren 15era arte zabalik izango  
da. Argibideak 943 77 91 58  
telefono zenbakian.

## IKASTAROAK

► **Moises Aspiazu** dantza  
taldearen eskutik, helduei  
zuzendutako arin-arin eta  
fandango ikastaroak zapatu  
goizetan. Argibideak  
943 76 15 40 zenbakian.

## DEIAK

► **Euskal presoak Euskal**  
**Herrira/kalera** lemapean,  
bihar, hilak 22, Iruñean izango  
den manifestaziora joateko  
autobusa izango da. Izen-  
ematea Arrano tabernan.

## ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

## Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

## PANA DE ROKUA JATETXEA

Asteburuetan bertako  
babak eta saibeskia

SALBADOR 10 ELGETA  
Tf. 943 76 82 73

## MUJIKA Jantxidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

► **Pol-Pol Argazki**  
**Taldearen irteera** astelehe-  
 nean 19:30etan, hilak 24,  
 Zabalotegiko lokaletik, gauze  
 argazkiak ateratzeko.

► **Euskal Mendi**  
**Federazioaren** 75. urteurrena-  
 ren diaporamaren estreinaldia  
 eguaztenean, hilak 26,  
 19:30etan Novedades aretoan,  
**Joseba Egibarren** eskutik.  
 Gipuzkoako Mendi Federazioak  
 eta Udal Kirol Zerbitzuak  
 antolatuta. Sarrera doan.

► **Hitzaldia:** "Nola bideratu  
 estresa eta antsietatea ikaste-  
 txean eta familian" datorren  
 eguenean, hilak 27, 18:30etan  
 Kultur Etxean, Pepe Romo  
 psikologo eta sofrologoaren  
 eskutik. San Martin Agirre  
 herri ikastetxeak antolatuta.

► **Batera** plataformak  
 deitutako kontzentrazioa  
 datorren eguakitzean, hilak 28,  
 20:00etan San Martin Plazan.

► **Odol ateraldia** eguaztene-  
 an, hilak 26, 18:30etan  
 Seminarioko lokalean.

## OHARRAK

► **Lokatza.** Txirrindularitzako  
 federatu lizentzia berriztu edo  
 egin nahi dutenek Lokatzak  
 San Martin plazan duen bule-  
 gora jo dezakete ostegunetan,  
 20:00etatik aurrera.

► **Debagueko egutegiak**  
 400 pezetan salgai Jardun  
 elkartearen eta Berrigararen.

► **AEK** euskaltegian  
 matrikulatzeko kanpaina  
 otsailaren 12ra arte zabalik.

## JAIK

► **San Bixente** Parteittin,  
 Angiozarren, domekan. Meza  
 12:00etan eta ondoren erro-  
 meria. Salda eta txorizoa  
 banatuko dira eta Kataide  
 Deba Garaiko txakolinaren  
 aurkezpena egingo da.

► **San Pauluak Uberan.**  
 Gaur, **eguakitz**a, bakailao afa-  
 ria Uberako Jaolatzak elkartean,  
 trikiti bikoteak alaiturik. Bihar,  
**zapatua**, goizeko 11etan ume-  
 endako jolasak eta kukañak,  
 15:00etan plater tiraketa eta  
 16:00etan mus txapelketa  
 Jaolatzan (izen-ematea 2.000  
 pezeta bikoteko). **Domekan**,  
 11etan Meza Nagusia, ondoren  
 salda eta txistorra banatuko  
 dira eta 12etan pilota parti-  
 duak. Martitzenean, San Paulo  
 egunean, 11etan Meza  
 Nagusia eta jarraian salda  
 emango da Jaolatzak elkartean.

## KINTADAK

► **1956an** jaiotakoaren afaria  
 urtarrilaren 29an Osintxuko  
 Txuringo jatetxean. Izen-  
 ematea bertan, 943 76 48 63  
 telefono zenbakian.

► **1941ean** jaiotakoaren afaria  
 urtarrilaren 29an Azpeitxi jate-  
 txean. Izen-ematea Lazkano  
 oinetako dendan edo jatetxean  
 bertan hilaren 26ra arte.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### El fin de los días

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
 Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
 Astelehena, ik. eguna: 19:30.

##### Te con Mussolini

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

**La lengua de las mariposas**  
 Eguakitz: 22:00.

#### Tarzan

Zapatua eta domeka: 17:00

##### El fin de los días

Zapatua: 19:30, 22:00.  
 Domeka: 19:30, 22:00.  
 Astelehena: 19:30, 21:30.  
 Martitzena, ikuslearen eguna:  
 19:30, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### El corazón del guerrero

Eguakitz: 22:15.  
 Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
 Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
 Astelehena: 19:30, 22:15.  
 Martitzena: 19:30, 22:15.  
 Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### Ghost dog

Eguakitz: 22:15.  
 Zapatua: 19:30, 22:15.  
 Domeka: 19:30, 22:15.  
 Astelehena: 19:30, 22:15.  
 Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### Tarzan

Zapatua eta domeka: 17:00.

#### ELORRIO. Arriola

##### El mundo nunca es suficiente

Zapatua: 20:00.  
 Domeka: 20:00.  
 Astelehena: 20:00.

##### El escarabajo de oro

Domeka: 17:00.

##### El chico de la Chaaba

Eguena, zine-kluba: 20:15.

#### AZKOITIA. Baztartxo

##### Mumford

Eguakitz: 22:00.

Zapatua: 22:00.

##### Deep blue sea

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.

### EL FIN DE LOS DIAS

**Zuzendaria:** Peter Hyams.  
**Aktoreak:** Gabriel Byrne,  
 Arnold Schwarzenegger, Kevin  
 Pollack, Robin Tunney. ≥ 18 URTE  
 Arnold Schwarzenegger taki-  
 lan arrakastatsu ibili ohi dena-  
 ren filme berria. 1979an, New  
 Yorken, Elizak mendeetan ha-  
 ren jaiotzari izu izan dion  
 umea jaioko da, eta arrazoi-  
 rekin izua, gainera: *Christine*  
 umeak antikristoaren ikurra  
 darama. Handik 20 urtera, po-  
 lizia ohi batek (Arnold Sch-  
 warzenegger) laguntza eska-  
 iniko dio *Christineri* (Robin  
 Tunney) lapurreta batean,  
 baina munduaren bukaera  
 gertu omen dago...



### TE CON MUSSOLINI

**Zuzendaria:** Franco Zeffirelli.

**Aktoreak:** Cher, Judi Dench,  
 Joan Plowright, Maggie Smith.  
 ≥ 18 URTE

Erreparto bikaina bildu du Ze-  
 firelli zinegile beteteranoak  
 1934. urteko Florencia hirian  
 girotutako filme hau errodat-  
 zeko. Zuzendariaren filme er-  
 di autobiografiko honetan, bi-  
 garren gerrate mundialaren  
 aurretik hainbat lekutatik eto-  
 rri eta Florencian bizi ziren  
 hainbat emakumeren gorabe-  
 herak kontatzen dira.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.  
 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!  
 Zatoz eta informa zaitetz!

**ARRAÑAGA**  
 AUTOESKOLA

Tf. 943 76 16 63

**San Martin Agirre Ikastetxeak gurasoentzako hainbat hitzaldi antolatu ditu. Pepe Romo psikologoak emango du hitzaldi horietako bat datorren egunean Kultur Etxean, "Nola bideratu estresa eta antsietatea ikastetxean eta familiar" izenburupean, eta aurrerago gurasoentzako gai berberaren inguruko ikastaro bat eskaintzeko asmoa dute.**

**G.** Estres eta antsietate hitzak bolo-bolo entzuten dira gaur egun. Nola definituko zenituzke?

**E.** Normalean, estresari buruz hitzegiten dugunean, zerbait negatiboaz ari gara. Hala ere, esan behar da beharrezkoa dela gutxieneko estres maila bat behar bezala lan egiteko, arreta jartzeko, hau da, beharrezkoa da tentsio minimo bat. Baina gutxieneko maila horretatik pasatzen bagara, distresa ematen da, eta egoera honetan estresa arazo bilakatu da. Hau ematen da zure inguruneak egin dezakezuna baino gehiago esijitzen dizunean, eta esijentzia horri erantzuten saiatzean. Antsietatea, berriz, distresaren sintoma bat edo ondorio bat da, eta distresaren ondorioz ematen diren jarretan isladatzen da.

**G.** Hain larria iruditzen al zaizu estresaren arazoa haurrengan?

**E.** Bai, baina ez bakarrik haurrengan, baita helduengan ere. Gertatzen dena da askotan haurren arazoak ez direla serio hartzen, beraien arazoak tontakeriatzat hartzen dituztela gurasoek: ikaskideren batekin haserretu direla, etxerako lan asko duela... Gurasoek kontuan hartu behar dute baikoitzak bere bizipenak dituela, eta baita bere arazoak

PEPE ROMO  
Psikologoa

## *"Estresaren eta antsietatearen arazoak okerrera egin du"*



Pepe Romok hilaren 27an emango du hitzaldia Kultur Etxean.

ere. Guri tontakeria bat iruditu arren, haur batentzat futboleko txarra izatea, ikaskideekin izan ditzakeen haserrealdiak e.a. arazo garrantzitsuak izan daitezke, eta antsietatea sortu diezaioke.

**G.** Haurrek gaur egun zeregin gehiegi al daukate eskola orduetatik kanpo?

**E.** Bai; hiruzpalau hiz-

***"Inguruneak zuk zeuk egin dezakezuna baino gehiago eskatzen edo esijitzen dizunean sortzen da estresa"***

kuntza ikasi behar dute, taekwondora, balletera, solifera, katekesira eta ez dakit zenbat gauza gehiagotara joan behar dute. Egia da haurrak gehiegi presionatzen ditugula askotan, eta horrek eragina duela beraien estresarengan. Baina kontuan hartu behar da baita ere, ikastetxetik kanpo, etxean ere gurasoen estresaren ondorioak jasan behar izaten dituztela. Horregatik, San Martin Ikastetxean laster emango dudak ikastaroa interesgarria da, estresa gaintzeko teknikak irakatsiko baitzaizkie gurasoei, eta batez ere erlajazio teknikak.

**G.** Nola hezi behar dira gurasoak, gero euren seme-alabak hezi ditzaten?

**E.** Nik beti esaten dut seme-alabak ez direla meloiak, eta beraz, ez dira meloi bezala tratatu behar, "ia nolakoa ateratzen zaidan" esanaz. Geneek euren eragina izango dute, behar bada, baina haurrak egin dituzten dira, ez dira eginda jaitzen, heziketaren arabera era batekoak edo bestekoak izango dira. Gurasoek, ezer baino lehen, kontuan hartu behar dute ereiten dena jasoko dutela. Beraien jarrera eta printzipioek euren seme-alaben heziketarengan eragina izango dutela.

**G.** Estresari eta antsietateari dagokionean, nola aldatu da gizartea, eta bereziki haurrak, duela urte batzuetatik hona?

**E.** Nik uste dut azken urteotan okerrera egin duela arazo honek. Nahiz eta ikasketen sistemak onera egin duen haurren sormena bultzatuz, era berean, eman dezaketena baino gehiago eskatzen zaie, baina baita helduei ere. Hori gero eta gehiago gertatzen da konpetitibitatearen eta presaren gizarrean bizi garelako.<



## Kartzela erabiltzeko proposamena egin die Udalak Gazte lokalekoei

Gazteen asanblada izango da gaur arratsaldean UNEDen

Udalaren ordezkariak eta Gazte lokalaren aldeko mugimenduko ki-deak Kartzela Zaharra ikusten izan ziren martitzenean, etorkizunean gazteek aipatutako lokala hartzeko aukera aztertzeke. Udalak, hain zuzen ere, Kartzela lagatzeko proposamena egin die gazteei.

Gaur egun Jardun elkar-teak erabiltzen du Kartzela eta, Udalaren proposamenak aurrera egitekotan, Kultur Etxe ondoan dagoen Errota Zaharra izeneko eraikuntza berriztu eta bertara pasatuko lirateke Jardunekoak.

Udaleko ordezkariak irailetik hona Gazte lokalaren aldekoekin bildu izan dira, beraien eskakizunari behingoz irteera emateko asmoz. Hasiera batean, bi aukera aztertu dira: alde batetik EHko udal ordezkariak Santana ermitaren ondoko jardineraren etxea deritzona gazteei uztea proposatu zuten eta EAJ-EA koalizioak Kartzela Zaharraren aldeko apostua egin zuen. Azken proposamen honek indarra hartu du alderdi guztien ar-



Artxiboko argazkian, Gazte lokalaren alde San Martin plazan antolatutako prentsaurrekoa joan zen ekainean.

teko akordio baten ondorioz eta, badirudi, hori izan daitekeela gazteen lokala aurrerantzean. Inigo Alberdi kultur zinegotziaren hitzetan, "Kartzela hartzeko proposamena egin diegu, baina oraindik gauza asko zehazteko dago: jestia, erabilpena eta beste hainbat. Gauzak nahiko ondo doazela esan daiteke eta ikusi beharko dugu gazteek nola hartzen duten gure proposamena. Dena dela, gauza asko konkretatu beharko

dira eta gu, gure aldetik, beraien aurkeztutako dokumentua aztertzen ari gara".

### GAZTEEN ASANBLADA

Gazte lokalaren aldeko mugimenduak dei egiten die herriko gazte guztiei gaur, eguakitzan, UNEDeko aretuan 19:30etan egingo den bileran parte hartzeko. Bertan Udalak egindako proposamena izango da aztergai. Udala eta gazteen ordezkariak hemendik bi astera bilduko dira berriz. Inigo He-

reros Gazte lokalaren aldeko ordezkariaren arabera, "Kartzelara joateko proposamena ondo aztertu nahi dugu eta horretarako partaidetzarik handiena lortu nahi dugu gaurko bileran. Dena den, lehenbailehen interesatuko litzaziguke Kartzelara sartzea, proposamen horren alde agertzen bagara behintzat. Kartzelara joatekotan, Errota Zaharra berriztu bitartean, Jardun beste lokal batera joatea proposatuko genioke Udalari".

*Mujika*  
geologia

**Berezitasunak:**  
Bizkotxoak  
Errellenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

*Larkano*

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.  
Tf. 943 76 25 03



Argazkian, Gestorak, EH, Ikasle Abertzaleak eta Jarraiko kideak eguazteneko prentsaurrekoan.

# EHk egueneko greban parte hartzeko deia egin du

**Euskal Herritarrok** alderdiak datorren eguenerako, hilak 27, deituta dagoen greba orokorrean parte hartzeko deia luzatu zuen eguaztenean prentsaurrean. Jesus Mari Garitano EHko zinegotziaren arabera, "presoen gaia gizarteratuta dago gaur egun eta, nahiz eta helburu bat izan, ez dugu amnistia eskatzen, presoak Euskal Herrian egotea baikizik. Orain arteko mobilizazioak beharrezkoak izan dira eta orain beste pausu batzuk ematea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Horregatik deitu dugu greba, ea

Madril eta Pariseko gobernuak mugitzen diren, presoen egoera larria baita. Beraz, deialdi zabala egiten diegu ikasleei, dendariei eta langileei greba egiteko, presoen gaiari behar den moduko erantzuna emateko". LAB sindikatuko kideek eta Altsasun bildutako alkateek azken egunotan egindako gose grebak eta presoek beraiak mantentzen duten borroka azpimarratu zituen, "giza eskubideak aldarrikatzeko euren osasuna arriskuan jartzen ari baitira presoak". Andoni Arroyo Gestoretako kideak azaldu zue-

nez, Iñaki Arietaleanizbeaskoa "Bixkai" bergararra Arantzazuko eritetxean ingresatuta dago, 44 egunez gose greban izan ondoren. Bere osasun egoerak hobera egin duela esan zuen.

Bestalde, "Euskal presoak Euskal Herrira/kalera" lemapean, bihar, hilak 22, Iruñean izango den manifestazioan parte hartzeko deia ere egin zuten EH, Ikasle Abertzaleak eta Jarraiko kideek. LAB eta Senideakeko ordezkariak ez zuten prentsaurrekoan egoterik izan, baina euren atxekimendua azaldu dute.

## Gastronomia jardunaldiak

**San Antonioko** Gure Ametsa elkarteko gastronomia jardunaldiekin jarraituz, astelehenetik otsailaren 5era bitartean transhumantziari buruzko argazki erakusketa ikusgai izango da bertan. Bestalde, Diego Sotelo sumillerraren eskutik, dastaketari buruzko jardunaldia izango da otsailaren 24an 19:30-etan; martxoan Luis Irizar sukaldariaren hitzaldia izango da.

## Errepidean konponketak

**Diputazioko** langileek San Prudentzio eta Epeleren arteko errepidean konponketak egin zituzten aurreko astean, tarte horretan ziren batzuek partxeatu.

## Ziklomotoreak matrikulatuta

**Udaltzaingoak** gogorarazten duenez, datorren urtarrilaren 26tik aurrera herriko ziklomotoz guztiak matrikulatuta egon behar dira. Beraz, ezinezkoa izango da matrikularik gabe zirkulatzea.

**CAMACHO**  
Drogeria Usaindegia  
Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35

  
**GAZTELU**  
BURDINAKI DENDA  
Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

  
Urteaga 9  
Tf. 943 76 18 45

# Mari Karmen Gallastegi EHUko errektore izateko hautagai

**Mari Karmen** Gallastegi Ekonomia katedradun bergararra Euskal Herriko Unibertsitateko errektore kargurako hautagaia izango da. Pello Salaburu orain arteko errektorea ordezkatzeko hiru kandidatura aurkeztu dira oraingoz, Manuel Montero Kazetaritza Fakultate Dekanoarena, Juan Ignacio Perez Euskara Errektoreordearena eta Gallastegi berarena. Kandidaturak aurkezteko epea datorren otsailaren 7an bukatuko da eta errektore berriaren aukeraketa otsailaren 23ko klaustroan egingo da.

Gallastegiren hitzetan, "Unibertsitatean urte asko daramatzat eta ondo dago

ikerketa eta balore akademikoak ordezkatzan dituen pertsona batek etapa berri baterako salto egitea. Datoren lau urteotan Unibertsitateak izango dituen erronkei aurre egin nahi nieke. Erabakia hartzea ez da erreza izan baina lehen ere aurkeztekotan izan nintzen eta nire hautagaitza bideragarria dela uste dut".

Gallastegi aukeratua izanez gero, lehen errektore emakumezkoa izango litzaiteke. Orain arte Arantza Mendizabal izan da bakarra, baina Gregorio Monreal ordezkatu behar izan zuen. Mari Karmen Gallastegik 54 urte ditu eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Sarr-

koko Fakultateko irakaslea da. Estatu Batuetan eta Londresen egin zituen ikasketak. Ekonomia eta Hazienda sailburua izan zen bost hilabetez 1991. urtean, Eusko Alkartasunako ordezkari modura.



## Haurrendako lokal eske gurasoak

**Herriko guraso** talde batek euren seme-alabekin egon ahal izateko toki itxi bat (umeen parkea, txiki park edo antzerktoa) jartzeko eskaera egin dio Udalari. Gurasoen idatzian jasotzen denez, "umeekin egoteko sarrera libreko toki itxirik ez daukagunez, tabernetan, kafetegietan eta gune irekietan egoten gara". Gurasoek lokal egoki bat jartzeko eskatzeri dute "hotz-bero, soinu-ezaugarri eta ekipamendu egokiarekin". Udalak ez dauka asmorik horrelako leku bat prestatzeko, ludotekarekin behar hori betetzen delako.

## Mariaren Lagundia Ikastolako


# Ateak zabalik

**Urtarrilaren 22an**

11:00etatik 13:00etara eta 16:30etatik 18:30etara

**Haurtzaindegi zerbitzua**

egongo da umeekin bisitaldia egin nahi duzuenontzat



*Mariaren  
Lagundia  
Ikastola*

*200 urte  
Bergaran  
heziketa-lanean*



Mariaren Lagundia Ikastola, Espoloia 1. Tf. 943 76 25 40.

# Berrigara

394 zenbakia.  
2000ko urtarrilaren 21a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefona: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate,  
Edu Mendibil, Tere Madinabeitia,  
Aintzane Irizar.

**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetza:** Itziar Kortabarría.

**Testuen zuzenketak:**  
Estepan Plazaola, Alex Labaien,  
Mariipi Laskurain.

**Erredakzio kontseilua:**  
Miguel Angel Elkoroberebizar,  
Alex Labaien, Gorka Elortza.

**Komikiak:** Bittor Rodriguez,  
Gorka Ortega & Jon Alvarez,  
Alex Ugalde, Unai Azkarate.

**Kolaboratzaileak:** Juan Martin  
Elxepuru, Josu Okina, Luis Mari  
Agirre, Antxon Agirre Sorondo.

**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:**  
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esaneg eta  
iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**



Bergeko  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.  
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### ALKATE JAUNARI: "HORI KLARU DAGO"

"Hori klaru dago", hauek izan ziren bai zure hitzak, baina hona hemen ekintzak. Aritzetako San Migel auzoak bi bide zituen kalera edo errepidera irtetzeko, bat Txarrantxatik Zubiaurre kalera irtetzen dena eta bestea Telleixatik zehar Altos Hornosera irtetzen zena. 1998an Altos Hornoseko Industrialdearen lanak hasi zirenean, Telleixako bidea apurtu eta irtenbide hori moztu egin zuten, auzoari ezer esan barik. Eta ez hori bakarrik, oinezkoei ere bidea oztopatzeko, egurrekin egindako itxitura txukun bat jarri zuten bidean "zigilatua-precintado" oharrarekin.

Hau ikusita, firmak batu eta 1998ko azaroan, eskaera luzatu genion Udalari arazolari konponbide bat emateko eskatuz. Erantzuna ere jaso genuen abenduan eta Udalak honako hau esan zigun "Aritzeta auzoa eta Ola auzoa lotzeko beste irtenbide tekniko egokiagorik egon daitekeen jakiteko, bidega-

ritasun estudioa, 2. sektoreko urbanizazio proiektu-egileari, "Sestra S.A. enpresari, adjudikatzea".

Honen ondoren, Udaleko langile batzuk ondo jakingo dute zenbat aldiz deitu eta bertara joan nintzen gauza berdina galdetzen eta erantzunik jaso gabe. Bazirudien bidegarritasun estudio hori benetan zaila zela ez baitzen sekula ailegatzeko; eskatuta ote dago?

Gero, hauteskunde garaian, bat-batean dena argitu zen; hautagaiek, auzora etorri zirenean botoak banatzen, erabakita zegoela bidea nondik egin esan ziguten eta denbora kontua zela. Denbora aurrera zihoala ikusita, 1999ko urrian beste eskari bat aurkeztu nuen Udaletxean gauza berdina eskatuz eta hau eramatean, alkatearekin egon nintzen arazoa azaltzen. Erantzuna hasieran esandakoa izan zen: "hori klaru dago", ez guretzat bakarrik, berarentzat ere bideek garrantzi handia zeukaten eta mantendu egin behar ziren.


Ordutik hona ezer ez, edo hobeto esanda, ezer onik ez. Gauza txarra bai ordea, joan den astean gertatutakoa: Txarrantxa aurrean argiak ipintzen ibili dira eta lurra jaso zuten aurreko egunetan. Auzokoak bitartean, hala-nola ibili gara bertatik pasatzen, bidea moztu gabe egin baitituzte lan horiek.

Baina asfaltoa botatzea falta zen eta hori egin zuten aurreko egunean. Ez dakit posible zen ala ez bidea moztu gabe lan hori egitea baina gauza da moztu egin zutela, denbora gutxirako, baina moztu egin zuten, ezer abisatu gabe gainera!!!

Ekintzak ikusita ez du ematen alkatearentzat klaru dagoenik, baina guretzat bai dagoela klaru geneuzkan bide biak behar ditugula gertatutakoa berriro errepikatu ez dadin, eta uste dut esku-bidea daukagula horretarako, betidanik egon den auzo-bidea baita kendutakoa.

*Maria Jesus Urkiola  
NAN: 15.366.674-Y*

## tira biraka alex ugalde



atrebentzia ezpada

bai, esan!

## Zer pentsatzen jatzu Setien obispuak kargua lagatzia?



**J. Martin Arrese-Igor**

Estrategia bat izango dala pentsatzen dot, politikia egongo dala atzetik, hau konpondu nahixan edo.




**Lurdes Arregi**

Nik uste dot lan ona egin dabela eta dimititzeko, osasun arazuak izango zittuala. Beste obispuarekin aldaketak etorriko dira.



**Jesus Etxabe**

Ez jat gaizki iruditzen, gaixorik badago. Orain arte lan ona egin dau. Eta ez jat pentsatzen berririk gauza txarrik ekarriko doskunik.



**Jabier Lazkano**

Lan ona egin dau neretako eta dimititzeko presioak eta politikia egon dira tartian. Orain datorrena, ez da bere mailan egongo.



**Juana Arrizabalaga**

Neri gustatzen jaten. Penia emon dost. Beti hartzen da pena ezagutzen dozun bat jun eta ezagutzen ez dozuna etortzen danian.



**Jose Maria Telleriarte**

Gaizki, gustatzen jatelako eta tartian politikia egon dalako. Berririk ez dot uste Euskadiren alde hainbeste lan egingo dabenik.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.  
Identifikazioa beharrezkoa.

### AUTOBUS GELTOKI OSTEKO TXABOLAK

**Emakumezko** batek deitu digu aste honetan erredakziora, behin behinoko autobus geltokiaren atzealdean dauden txabolen inguruan komentario bat egiteko. Dakizuenetz, urte amaieran, Beheko Estazioa bota zutenean, behin behinoko autobus geltokia jarri zuten lehengoaren parean. Autobus geltoki berria jartzeko, baina, Eguren tailerra bota zuten eta ingurua egokitu egin zuten. Hala ere, Eguren tailerra botatzean, honen atzean zeuden txabola batzuk agerian geratu dira eta hauek itsusiak iruditzen zaizkio telefonotik hots egin digun emakumeari, are gehiago herriaren erdian daudela kontuan izanda, hainbeste jende ibiltzen den leku batean. Txabolak botatzea eskatu du.

**Bolu**  
liburutegia

Enmarkazioak  
Ispiluak neurrira  
Zurezko artikuluak  
Bergarako oleo eta  
lumatxoak

Koldo Elizalde 1, behea  
Tf. 943 76 70 60

**Gaspar**

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02 BERGARA

**GAR**

**Sukaldeak.**  
**Horma armairuak.**  
**Neurrira egindako**  
**altzariak.**  
**Ateak eta leihoak.**  
**Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86

BIZKOTIAK. ERREILENOAK ETA TOITOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Telefono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

**BERGARA**

*Gozogintzan aintzindari.*

**bergarako errota** antxon agirre sorondo

**B**ergaran izan ziren erroten inguruko sail berri bati ekingo diogu oraingo honetan.

Fitxak deitu ditugu, gure asmoa ez delako datu historiko asko ematea, bakoitzaren inguruko datu batzuk ematea baizik. Sarreratxo bat egingo dugu lehendabizi, ondoren errota bakoitza aztertuko dugu eta, azkenik, errota moten gainean berba egingo dugu, euren ezaugarriak garrantzitsuenak aipatuz.

Kristo aurretiko 7000 urte inguruan, gure ingurune honetan bizi ziren gizakiek batik bat haragijale izateak alea edo bihia ere jatera pasa zi-

**“Ohizkoa zen baliabide ugariko etxe bakoitzak bere errota izatea.**

**Ur-baliabide ugariko ingurunean gaude”**

renean, eneolitiko garaian, landareak egokiago erabiltzeko sortu ziren errota. Hasieran bi harri besterik ez ziren, baina denborarekin aldatuz joan zen eta erromatarrek zaldiak erabiltzen zituzten mugitzeko. Ertaroan, berriz, ura erabiliko dute mugimendua sortzeko.

Gipuzkoan 661 errota izan ziren, horietako 41 Bergaran; beraz, errota-rik gehien zuen probintziako herria

dugu Bergara, ondoren Donostia 28rekin.

Hainbeste errota izatearen azalpen bat izan daiteke ohizkoa zela sortetxeek, baliabide ugariko etxe bakoitzak, bere errota izatea. Eta, gainera ur-baliabide ugariko ingurunean gaudela kontuan hartuz gero, azalpena garbia da: dirua + ura = errota.

Beste barik, datorren astean, sail honetako lehen fitxa emango dugu.<





## Bizkorrak txapeldun

Arrasate eta Bergarako gaztetzoez osatutako **Bizkorrak** futbol taldeak irabazi zuen Gabonetako oporraldietan jokaturako **Aitor Lopez Rekarte futbol 7 modalitateko trofeo**a, eta **Zubizarreta Peñak** antolatutako txapelketan, berriz, bigarren tokian geratu ziren. Argazkian, Bizkorrak taldeko **Markel Gomez, Xabier Linazisoro eta Mikel Larrañaga** bergararrak Aitor Lopez Rekarteren eskutik garaikurra jasozten, eta Aitor bera BERRIGARAREN ale batekin.



## Begarako gozoen kofradia

**Errelleno eta tostoi**en kofradia eratzeko lehenengo bilera San Antonioko Gure Ametsa elkartean egin zen joan zen eguenean, hilaren 13an. Kofradia honen helburua, Bergaran hain tipikoak diren gozo hauek ezagutzera ematea eta bultzatzea izango da. Hurrengo bilera baterako deia eginda dago hilaren 26rako, eta gutxienez 20 lagun biltzea espero dute.

## Haurren danborrada

**San Sebastian** eguneko ospakizunik ezagunenak **Donostia eta Azpeitikoak** diren arren, Bergarako Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxeetako 2 eta 5 urte bitarteko haurrek ere urtero-urtero ospatzen dituzte beraien danborradatxoak. Aurten, eguen arratsaldean jardun zuten danborrarekin jo ta sua.



# Ofizioa ikasten

## Gazte langabetuendako ikastaroak Mankomunitateak antolatuta

**Ofizioen bat ikasi nahi duen gazteak ez du aitzakiarik gaur egun. Ez behintzak gure eskualdean, Debagoieneko Mankomunitatearen menpe dauden Lanbide Hastapenen Zentroak eta Lantegi Eskolak horretarako aukera ematen dutelako. Bi ikastetxe berezi hauek Arrasaten daude eta bertan ikasten ari diren 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, bergarar eta antzuolar batzuk ere badaude.**



**D**ebagoieneko langabezia-tasa %6,3koa (EUSTAT, 1998-99) eta Bergarakoa %5,26koa (INEM, 1999ko abendua) dela

kontuan hartuz, eskualdeko langabetuen kopurua ez dela oso kezagarria esan daiteke. Hala ere, langabeziak bereziki jotzen dituen sektoreen artean, prestakuntzarik ez dutelako lehen lana topatu ezin duten gazteena azpimarratu behar da. Talde honetaz arduratuta, Mankomunitateak, bere Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziaren bitartez, bi zentro berezi jarri zituen martxan orain dela urte batzuk.

Arrasaten, Eskualdeko Ospitaletik gertu eta Zaldibar izeneko eraikuntza herrietako gazte langabetuei lanbide bat erakusteko asmoarekin martxan jarritako zentro horiek: Lanbide Hastapenen Zentroa eta Lantegi Eskola.

Bi zentro hauen helburua bera da, gazte langabetuei lan-irteera bat eskaintzea, baina funtzionamendua eta antolaketa desberdina dute. Lanbide Hastapenen Zentroan, esaterako, lanbidearen lehen urratsak erakustera mugatzen dira. Lantegi Eskolan, berriz, lanbidea erakustez gain, soldata baten

trukeko lana egiteko aukera ere eskaintzen zaie gazteei.

### LANBIDE BAT IKASI

Joan den urteko irailean hasi zen martxan Lanbide Hastapenen azken ikasturtea eta ekainean amaituko da. Mila orduko iraupena du eta denbora horretan, ikasleek, prestakuntza praktikoa bitartez, aukeratutako bi lanbideen lehen urratsak ikasi eta emango dituzte, lanbide bakoitzari 6 hilabete eskainiz. Ikasleek hiru aukera dituzte: sukaldaritza eta bulego-zerbitzuak, arozgintza eta igeltseritza edo mekanika eta elektrizitatea. Lanbide bakoitzerako tailer eta monitore bat dago.

Jose Luis Arregi arrasatearra da zentro honetako zuzendaria, eta horrela azaltzen du bere menpe dauden ikasleei eskaintzen zaiena: "Ofizio baten oinarriko ezagutzak erakusten dizkiegu gaztetxoei tailerretan. Ikastaroak, irakaskuntza arautua oinarriko titulurik gabe amaitu duten 16 eta 20 urte bitartekoei zuzenduta daude, lan-merkatuan sartzeko prestakuntzarik ez dutenei. Eta klase praktikoez gain, formakuntza orokorra eta laneratzeko orien-

## Lanbide Hastapenetan eskualdeko 72 gazte ari dira, 15 Bergarako tartean

tabideak ere eskaintzen dizkiegu. Gure helburua ikastaroa amaitzean gaztea lanean hasteko prestatuta egotea da".

Martxan dagoen ikastaro honetan 72 gaztetxok eman zuten izena, gehienak mutilak. Horretarako, zentrori bertara edo eskualdeko udaletxetako enplegu zerbitzuetara jo zuten irailaren hasieran. Ikasle guzti horietatik 15 Bergarakoak dira eta 3 Antzuolakoak.

Lanbide Hastapenen Zentroa Eusko Jaurlaritza eta Mankomunitateko udal-txteen artean finantziatuta dago, %70 eta %30, hurrenez hurren. Ikasketak dohainekoak dira. Ikasleek, amaitutakoan, ikasketak horiek egin eta gainditu dituztela dioen agiria eskuratzen dute.

Lanbide Hastapenen Zentroan ibilitako ikasle batzuek, aukeratutako bi lanbideei buruz 1.000 orduetan zehar ikasitakoa sakontzeko aukera ere eskaintzen dute, eta horretarako dago Lanerako Prestakuntza egitaraua. Egitarau honi esker, sakontze-ikastaroak ematen dira, aurrekoen jarraipen modura. Orain arte mekanika arlokoak eman di-





Beste orrialdean, Antzuolako Olaran etxea eta berau konponduko duten Lantegi Eskolako ikasle batzuk aroztintza tailerrean.

Lantegi Eskolan tapizgintza ikasteko aukera ere badago. Neskak dira tailerreko ikasle guztiak.

ra Zaldibar ikastetxean bertan. Eskualdeko hainbat udaletan, bestalde, ikastaro gehiago eman dira, herri bakoitzaren eskaeraren arabera. Bergaran, esaterako, elektrizitatea izan da emandako ikastaroaren gaia, bertako lantegien eskariari erantzunez.

### IKASI ETA LAN EGIN

Lantegi Eskolak orain dela 10 urte ireki zituen atea eskualdeko langabetu gazteei lanbide bat lan eginez erakusteko xedearekin. Ikastaldi bakoitza proiektu baten inguruan egituratzen da eta, horrela, Mankomunitateak aukeratu eta lantzen du proiektu hori, eta gero INEM-ek bere onespena ematen du, erakunde hau delako horren % 75a ordaintzen duena. Ikastaldi bakoitzean eskainiko diren lanbideen trebakuntza proiektu horren beharren arabera izaten da eta, horrela, azken ikasturtean burutuko den proiektua Antzuolako Olaran etxearen berrikuntza izanik, aroztintza, igeltseritza, elektrizitatea eta tapizgintzaren ingurukoak dira eskaintzen ari diren ikasketak.

Ikasturtea iazko abenduaren 15ean hasi zen, guztira 41 ikasle ari direlarik. Horieta 12 Bergarakoak dira eta 1 Antzuolakoak. Hilabete darama mar-

txan, beraz, 2 urteko iraupena izango duen ikastaro berriak, eta oraindik plaza libreak daudela adierazi digu Rosa Mari Ezkurra zuzendariak. Izena emateko bertatik pasa behar da, baldintza bi betez: 16 eta 24 urte bitartekoa izatea eta INEM-en langabetu-txartela edukitzea.

Klaseak goiz eta arratsaldean izaten dira, 8 bat ordukoak. Goizez prestakuntza orokorreko klaseak ematen dira, ikasleei Bigarren Mailako Eskola Graduatua eta Lanbide Heziketako lehen maila ateratzeko aukera eskaintzen dizkiena. Arratsaldean klase praktikoak ematen dira, lanbide bakoitzean aditu den monitore baten eskutik.

### ANTZUOLAKO OLARAN ETXEA

Tailerretan sei hilabete pasa eta gero, ikasitako guztia praktikan jarriko dute ikasleek Antzuolan, herriko plazan daogoen Olaran etxean.

Goitik behera berri behar dute Olaran etxea. Kanpoko hormak zutik baditu ere, barruan zituen hiru solairuak jausita daude eta horiek berriz eraiki eta gero, Lantegi Eskolako hormak, atak, leihoak, egurrezko egi-

## Lantegi Eskolan tokia dago igeltseritza, elektrizitatea eta aroztintza ikasteko

tura eta elektrizitatea egin eta jarriko dituzte.

Arrasateko Lantegi Eskolaren proiektu honek 216.287.000 pezetako aurrekontua du eta INEM eta Mankomunitatearen artean ordainduko da.

Olaran etxearen berrikuntza proiektuan lanean diharduten bitartean, Lantegi Eskolako ikasleek lan-kontratu izango dute eta soldata txiki bat kobratuko dute, INEMek ordainduta, 52.000 pezeta ingurukoa.

Ikastaroa amaitu eta gero, seguraski, lana topatuko dute denek edo ia denek, aurreko proiektuak amaitzean, Bergarako Kartzela Zaharrarena horien artean, gertatu zen bezala.<

### Zuzenketa

Joan zen asteko BERRIGARAN, ardoari buruzko erreportaiari, Pedro Manso ardo-banatzailerik bezala aurkeztu genuen. Hala ere, esan behar dugu, Pedro Manso kimiko, enologo eta enpresarioa dela eta ez ardo-banatzailerik. Bakoitzari berea zor zaionez, joan zen asteko okerra zuzendu nahi dugu lerro hauen bitartez.



# Josuren Gabilondo "Baxarte"

Bizitza guztia, faszismoaren kontra eta justiziaren alde borrokan

**Josuren Gabilondo "Baxarte", joan zen abenduaren 16an hil zen Grenoblen (Frantzia). Bere adineko beste asko bezala, gerra zela eta, Bergara, bere jaioterria, gazte gaztetatik laga behar izan zuen.**

Josuren Murgizu

Frankoren tropak sartzeaz zuek eta, pake eta etsipen zuein moduan izara zuriz apaindutako Bergara utzi behar izan zuen. Eta horrela, hamasei urte besterik ez zituela, beste gudari asko bezala, sartu zen presaka sortutako kolore ugari euskal batailo horietako baten, Loiola izenekoa, Lino Lazkano bergararra komandante zuela. Garbe menditik, bailara guztia ikusiz, Intxortako eraso gogor eta ospetsuen lekuko izan zen. Eta dantzari bikain horrek, suarekin horrela baitaiatuta, ekin zion faszismoaren kontrako eta justiziaren eta sozialismoaren aldeko borroka gogor eta luzeari, bai Euskadin, Espainian eta Frantzian.

Borrokan jardun zuen euskal ejerzito nekatua eta ahuldua Santanderren preso egin zuten arte; eta preso egin ondoren Errepublikaren kontra jarri zuten borrokan, requete moduan, bai Tuelen, Huescan eta baita Guadalajaran ere. Hala ere, bere izpiritu errebolitaria berpiztu egin zen gau baten, eta Nikolas Larrañaga "Kiko" eta beste lau arrastearrekin batera ihes egin zuen errepublikanoen aldera, hauek porrot nabarmena bizi zutenean. Ondoren, XXII. errepublikar dibisioan jardun zuen borrokan, Ibarrola euskaldunaren agindupean guda bukatu zen arte. Albatera-n, heriotzaren zelai ikaragarrian egon zen preso, baina orduan ere paper faltsuekin, eta



"Baxarte" (eskuman) Pedrotxo Garciarekin, tuberkulosia sendatzeko Pariseko Saint Hilarie de Turret sanatorioan.

orain ere "Kiko"rekin batera, ihes egin eta Frantziako mugaraino iritsi zen; baina Gurs-en atxilotu zituzten berriro, eta frantziar errepublikak espainiar errepublikazaleendako utzitako zelai baten sartu zituzten.

1940an, Alemaniaren inbasioaren garaian, Frantziako ejerzito gogogabetuaren alboan egin zuten borroka, eta erresistentziara pasa ziren ejerzitua erori zenean. Ondoren, Pirinioetako Ariege departamentua izan zen euren jardunerako abiapuntu "maki" moduan.

**Erreboltari, harro eta nekaezina zen, kulturaduna; oratoriarako dohaintsua zen bergarar honi asko zor diogu**

Eta Munduko II. gerratea bukatu ondoren isilean bueltatu zen Euskal Herrira, PCEren aginduetara, JSUren (Sozialisten Gazteri Batua) kide moduan, frankismoaren kontrako erresistentzia pizteko helburuarekin. Hortxe harapatu zuen tuberkulosia eta bere bizitza guztian izango zuen gaisotasun horren gaitza. Ebakuntza ere isilean egin ondoren, Bergarako JSUren partaideekin eta gazte nazionalistekin batera izan ziren diktaduraren kontrako lehen erresistentzia-indarra Bergaran.

1947an, Bizkaia eta Gipuzkoako JSUak gogor desegin ondoren, arrantzuntzi baten ihes egin zuen Hendaia Donostiako estropadak aprobetxatuz.

Handik aurrera bere jarduna material aldetik laguntzea eta frankismoaren presoen egoera salatzea izan ziren, eta baita 50 eta 60 hamarkadetan Europaruntz zihoan espainiar diaspora ekonomikoari laguntzea ere.

Erreboltari, harro eta nekaezina zen, kulturadun gizona; oratoriarako dohaintsua izan zen bergarar honi asko zor diogu, beste askori bezala; batzuk baita beren izena ere. Abenduaren 21ean Paun egin zitzaion omenaldi xume batekin, bere lagun leial eta banaezin Teresa Arinak eta erresistentziako bere lagunak lagunduta, bota zituzten bere errautsak berak amesten zuen eta bere borrokaren zio izan zen unibertso gizakiago horretan. Ezin izango dut ahaztu, elkarriketa luze eta interesgarri baten ondoren, Frantziako ejerzitoaren domina zahar eta ahaztu batzuk atera zituenekoa. "Ez esan inori erakutsi dizkizudala" esan zidan, baina dominek ez dute ezertarako balio.<

## Zalla taldeari irabazteko beharrean Bergara, bihar Agorrosinen

### Mahoneroak jaitsiera postuetan aurkitzen dira

Bergarak partidu erabakiorra jokatu du Zalla taldearen aurka bihar, zapatua, 16:00etan Agorrosinen. Joan zen domekan Basaurin galdu ondoren, mahoneroak jaitsiera postuetan ditugu eta, beraz, ezinbestekoa dute bihar garaipena lortzea.

Bergara sailkapeneko 18. tokian dago, 20 punturekin. Sodupe eta Elgoibar dira azkenak (18 puntu) eta bergararren aurretik Lagun Onak, Aurrera Vitoria (biak 21 punturekin), Tolosa eta Ondarruko Aurrera (24) daude. Zallarren ondoren, Aurrera Vitoria, Tolosa eta Lagun Onak taldeen aurka jokatu beharko du Bergarak eta zulotik ateratzeko beharrezkoa izango da partidu horietan emaitza onak lortzea. Hiruren aurka berdindu egin zuen Bergarak lehen itzulera eta liga amaieran gol-averagea alde izate-



Argazkian, Biain entrenatzailea zapatuan Baskoniaren aurka jokatuako partiduan.

ko, garaipenak are eta balio handiagoa dauka.

Bihar, esan bezala, aurrean Zalla taldea izango

dute bergararrek. Lehen itzulera Bergarak 0 eta 1 irabazi zien bizkaitarrei. Zalla sailkapeneko 7. tokian

dago, 31 punturekin. Azken jardunaldian ezusteko galanta hartu zuten, Sodupe- ren aurka 1-2ko emaitzarekin etxean galduz. Golak egitea kosta egiten zaio Zallari: 17 sartu dituzte (Elgoibarrek bakarrik egin ditu gutxiago) baina gol gutxi egiten diote (17). Alde horretatik, Reala eta Lemona dira marka hobek dituzten bakarrak.

Bergarari dagokionez, zapatuan aukera paregabea galdu zuen Baskoniaren aurka emaitza positiboa lortzeko. Iñigo Iriartek banako berdinketa egin zuen 85. minutuan burukada bikain bati esker, baina berehala garaipenaren gola lortu zuen Baskoniak eta luzapenean hirugarren gola iritsi zen. Esku hutsik bueltatu ziren mahoneroak eta behar bada punturen bat merezi izan zuten.

### JOKALARIAK

Jokatuak Minutuak Titularra Txartelak Golak

#### ATEZAINAK

Markel Egaña .....18 .....1.620 .....18 .....0 .....-21  
Urko Agirre .....3 .....270 .....3 .....0 .....-7

#### DEFENTSAK

Ander Berraondo .....16 .....1.358 .....15 .....3h .....0  
Asier Rodriguez .....16 .....1.440 .....16 .....1g 4h .....1  
Jon Andueza .....20 .....1.705 .....20 .....1g 6h .....0  
Mikel Osoro .....19 .....1.710 .....19 .....7h .....0  
Txonan Gallastegi .....12 .....774 .....7 .....1g 2h .....0  
Etor Laskurain .....17 .....1.566 .....17 .....4h .....1  
Luis Mari Blanco .....9 .....760 .....8 .....1h .....0

#### ERDILARIAK

Arkaitz Arana .....18 .....1.522 .....18 .....2h .....1  
Gorka Dueñas .....17 .....922 .....12 .....2h .....5  
Gotzon Urzelai .....11 .....489 .....4 .....2h .....1  
Iñigo Iriarte .....11 .....186 .....0 .....0 .....1  
Jokin Mendiarratz .....17 .....1.530 .....17 .....2h .....1  
Josetxo Lizarralde .....18 .....1.481 .....17 .....3h .....3  
Oskar Maiztegi .....14 .....644 .....7 .....1g 2h .....0

#### AURRELARIAK

Gorka San Vicente .....11 .....510 .....6 .....2h .....0  
Iban Blanco .....9 .....349 .....1 .....3h .....2  
Igor Alberdi .....10 .....435 .....6 .....6h .....1  
Igor Larrañaga .....3 .....46 .....0 .....1h .....0  
Joseba Duran .....2 .....14 .....0 .....0 .....0  
Oxel Apraiz .....16 .....1.231 .....14 .....1g 6h .....4

### EMAITZAK *Lehen itzulera 2.a*

Amorebieta-Bergara	..1-1	..2-1
Bergara-Baskonia	..0-1	..1-3
Zalla-Bergara	..1-2	..-
Bergara-Aurrera Vitoria	..2-2	..-
Tolosa-Bergara	..0-0	..-
Bergara-Lagun Onak	..1-1	..-
Sestao-Bergara	..2-1	..-
Bergara-UPV	..1-4	..-
Eibar-Bergara	..1-0	..-
Bergara-Real Sociedad	..1-2	..-
Hernani-Bergara	..1-0	..-
Bergara-Elgoibar	..1-0	..-
Sodupe-Bergara	..1-3	..-
Bergara-Santurtzi	..3-0	..-
Bergara-Arenas	..1-1	..-
Lemona-Bergara	..2-0	..-
Bergara-San Pedro	..1-1	..-
Aurrera Ondarroa-Bergara	..1-1	..-
Bergara-Durango	..1-1	..-

# Ansuategi eta Olasolo Arrasateko rugby taldean

## Bergararrak, taldeko beteranoenetakoak

Lehen itzulera amaitu ondoren, Arrasateko rugby taldea Euskal Ligako 2. postuan dago. Patxi Gorosabelek eta Joseba Maidaganek entrenatzen duten taldeak 8 partidu irabazi eta hiru galdu egin ditu orain arte. Iñigo Olasolo eta Iñigo Ansuategi bergararrek igoera lortzeko itxaropena daukate.



Argazkian, Olasolo eta Ansuategi Atxabalpen ateratako argazkian.

Ansuategi (32 urte) taldeko pilierra da eta Olasolo (30) bigarren lerroan aritzen da; "Ansuategi meletan aritzen da eta ni atzerago, bultzatza eginez" esaten digu Olasolok. Beraien ustez ez da aparteko gaitasunik behar rugbyari aritzeko. Olasolo orain dela 12 bat urte hasi zen rugbyari jokatzeko, uni-bertsitatean ari zela, eta azken 6 urteak Arrasateko taldean eman ditu. Ansuategiri rugbyari hasia nahi ote zuen galdetu eta pilierrak dagoeneko 10 urte egin ditu Arrasaten. Iaz Euskal Ligako 2. postuan sailkatu ziren baina ezin izan zuten igoera lortu. Ansuategiren arabera, "aurten lehen mailara igoetzeko asmoa daukagu Ordizia, Hernani... eta beste

hainbat talderen kontra jokatzeko". Arrasaten rugbyari tradizioa dago; taldeak 25 urtetik gora ditu.

### GIRO BIKAINA

Arrasateko taldean 35 lagun ari dira eta bergararrek aurrealdean jokatzeko dute. Olasoloren hitzetan, "teorian taldeko handienak eta indartsuenak aritzen gara hor, kontrarioei txoke egiteko". Hala ere, ez dute uste kirol gogorra denik. Oraingoz behintzat zorrea izan dute lesio larririk ez izatean. Astean bi aldiz entrenatzen dute, martitzenetan arlo fisikoa eta eguenetan taktika landuz. Partiduak Atxabalpen jokatzeko dituzte; "talde-

an giro ona dago eta beste taldekoekin ere ondo konpontzen gara. Normalean partiduaren ostean aurkariekin bildu eta hirugarren zatia deritzona egiten da, hau da, guztiak elkarrekin trago batzuk hartu eta giro onean partiduaren gorabeherak komentatzen dira". Biek ere jokatzeko jarraitzeko asmoa daukate. Gainera, 30 urtetik gorakoek beteranoen taldean ere jokatu dezakete, "gusanilloa ez galtzeko ondo dago eta urtean laupabost partidu antolatzen dira". Olasoloren ustez, "Iparraldean hemen baino askoz maila handiagoa dago eta interesgarria litzateke harremana sendotzea".

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### Bergara-Zalla

Hirugarren maila

Zapatua. 16:00. Agorrosin

#### Bergara-Mutriku

Neskak

Zapatua. 17:45. Ipintza

#### Bergara-Almen

Lehen mailako infantilak

Domeka. 10:00. Ipintza

#### Bergara-Lagun Onak

Ohorezko kadeteak

Domeka. 11:30. Ipintza

### SASKIBALOIA

#### Bergara-La Milagrosa

Senior mutilak

Zapatua. 19:00. Kiroldegia

#### Bergara-Aletico SS

Kadete mutilak

Domeka. 10:30. M. Lagundia

#### Bergara-Ordizia

Jubenil mutilak

Domeka. 10:30. M. Lagundia

### PILOTA

Herri arteko pilota txapelketaren finalak hilaren 28an 19:00etan Udal Pilotalekuan.

## Aholkularitza fisikoa

**Kirol** entrenamendu plangintza egin edo informazioa jasotzeko interesa dutenek Kirol Zerbitzura jo beharko dute eta kirol teknikariarekin elkarrizketa izan eta programa zehaztu. Argibideak: 943 77 91 67.

**etxalar**  
kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
943 76 50 68

**Aldibi**

Aldibi autoak, S.A.  
Zigarrola 1 • ARRASATE  
Tf. 943 71 20 02  
Faxa: 943 79 65 65

**PISZINETAKO  
TABERNA**

Bokadiloak  
Pintxoak  
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g  
Tf. 943 76 53 55



**ARRI**

**Industri  
hornidura**

Zubiaurre 30  
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.  
Mugikorra: 670 31 92 44.



# Labegaraietako futbito txapelketa

## PARTIDUAK

### ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Patxaran Team-Amilotx  
10:00: Uve Bikoitza-Vacalouras  
11:00: Ion Autoak-Soropotroak

Uve Bikoitza  
Ion Autoak  
Vacalouras

### DOMEKAN BARRUAN

09:00: Txipiron-Fac  
10:00: Xurrupak-Errotagain  
11:00: Aterpe-Guadalest  
12:00: Ortzí-A Ze Flaxa Etxagi  
16:00: Agiñazpi-Shaktale  
17:00: Bar Canalejas-Ufala  
18:00: K. Piperrak-Artusamak  
19:00: Azpeitxi Jatetxea-Sirimiri Eri  
20:00: Amoskibar-Bayer

Errotagain  
Guadalest  
Ortzí  
Aterpe  
Canalejas  
Artusamak  
Sirimiri Eri  
Bayer  
Azpeitxi

### DOMEKAN KANPOAN

10:00: Etengabe-Mo(ko)lotov  
11:00: Irubide-Pinturas Bergara  
12:00: Bildurbarek-Urrutxurtu  
16:00: Mongatxurak-Tom Cat  
17:00: Moskis-Pagomendi  
18:00: Patatus-Agirrebeña Jatetxea

P. Bergara  
Bildurbarek  
Irubide  
Moskis  
Patatus  
Moskis

## GORA ETA BEHERA



### Ezusteko ugari Gabonen bueltan

Soropotroak, La Juve, Ari Ari, Fac, Urrutxurtu eta Guadalest taldeek sailkapenean aurretik dituzten taldeen aurka garaienak lortu zituzten azken jardunaldian.



### Mo(ko)lotov eta Ufala

A multzoan sailkapeneko azken tokietan Mo(ko)lotov eta Moskisen arteko partidua bertan behera geratu zen antzualarrak agertu ez zirelako. Ufalak azken tokian jarraitzen du Komando Piperrak taldearen aurka galdu ondoren.

## ARGI!

### Azaltzen ez direnei 3 puntu gutxiago

Antolaketak partiduetara aurkezten ez diren taldeak zigortzen jarraitzen du. Oraingoan 3 puntu kendu dizkio Mo(ko)lotov taldeari. Taldeek badute aukera antolaketari garaiz partiduen fetxa aldatzeko eskatzeko.

## SAILKAPENAK

## EMAITZAK

### A MULTZOA

Mo(ko)lotov-Moskis	0-3
Pagomendi-Irubide Jatetxea	10-3
Sirimiri Eri-La Juve	0-5
Ari Ari-Azpeitxi Jatetxea	4-1

### B MULTZOA

Amilotx-Agirrebeña Jatetxea	8-5
Bayer-Patxaran Team	4-3
Mongatxurak-Patatus	8-1
Urrutxurtu-Amoskibar	3-0

### C MULTZOA

Shaktale-Uve Bikoitza	11-3
Vacalouras-Soropotroak	2-6
A Ze Flaxa Etxagi-Agiñazpi	3-0
Buya-Torrekua	2-3

### D MULTZOA

Errotagain-Txipiron	6-2
Xurrupak-Aterpe	2-2
Fac-Bar Canalejas	8-1
Ufala-Komando Piperrak	1-3
Artusamak-Guadalest	3-9

### A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	30	11
2. Azpeitxi jatetxea	24	12
3. Sirimiri Eri	23	12
4. Irubide Jatetxea	22	11
5. Pinturas Bergara	13	11
6. Ari Ari	13	12
7. Etengabe	12	11
8. Moskis	9	11
9. La Juve	6	12
10. Mo(ko)lotov	4	11

### B multzoa

	P	J
1. Bayer	26	11
2. Amoskibar	22	11
3. Mongatxurak	21	11
4. Urrutxurtu	20	11
5. Bildurbarek Opel Lam	19	11
6. Patxaran Team	14	11
7. Amilotx	12	11
8. Agirrebeña Jatetxea	10	11
9. Tom Cat Argandolas	9	11
10. Patatus	0	11

### C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	31	11
2. Ortzí	27	11
3. Shaktale	22	11
4. Uve Bikoitza	19	11
5. Agiñazpi	13	11
6. Ion Autoak	12	11
7. Vacalouras	11	11
8. Buya	10	12
9. Torrekua	7	12
10. Soropotroak	6	11


### D multzoa

	P	J
1. Errotagain	29	11
2. Fac	23	11
3. Artusamak	22	11
4. Bar Canalejas	22	11
5. Guadalest	22	11
6. Xurrupak	16	11
7. Txipiron	10	11
8. Aterpe	5	11
9. Komando Piperrak	4	11
10. Ufala	-2	11


Informazio hau babesle hauei esker:

## OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21 ZUBILLAGA z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2  
943 76 14 95

JAUJA  
KIROLAK

## mahoneroak



OXEL APRAIZ  
Bergarako jokalaria

Joan zen zapatuan, Basaurin, punturen bat eskuratzea merezi izan genuela uste dut, bi taldeak ere nahiko antzera ibili baikin. Lehen zatian Baskonia aurreratu zen markagailuan falta jaurtiketa baten bitartez zegoela, partidua amaitzear zegoela, berdintzea lortu genuen, gol ederra eginez gainera. Partidua berdinketarekin amaituko zela uste genuenean bi gol egin zizkiguten. Lehenbizikoan ez dakit des-pistatu ez ote ginen eta azken gola, faltaz, bikaina izan zen. Ez dut uste zorte gehiegirik izan genuenik.

Bigarren zatian batez ere gure taldea ondo aritu zen baina ez genuen saririk jasoso. Orain jaitsiera postuetan gara eta hemendik aurrerako partidua guztiak finalak izango dira. Zapatuan, Zallaren aurka, hiru puntuak eskuratzen ahaleginduko gara. Lehen itzuleran, Zallan, irabazi egin genien eta ea bihar emaitza errepikatzen den. Garaipena ezinbestekoa zaigu.



- Sailkapen orokorra:
- Josetxo Lizarralde . 8 puntu
  - Mikel Osoro . . . . . 6 puntu
  - Asier Rodriguez . . . 6 puntu
  - Oxel Apraiz . . . . . 5 puntu
  - Jokin Mendiaratz . . 5 puntu
  - Arkaitz Arana . . . . . 5 puntu

Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika jubenil nesken eskubaloi taldea

## Garaipenaz, agur ligari

**BERGARA** 13

**HERNANI** 8

### Bergara:

Nora Madariaga, Olatz Manuel (4 gol), Irati Sasieta, Ainhoa Unamuno (2 gol), Maite Zabaleta (4), Maitane Uribe (2), Lorea Zurutuza -hasierako taldea-, Edurne Hurtado (gol bat), Sherezade Moreno, Sara Usabiaga eta Erika Arteaga.



Argazkian, Edu Orgazen taldea zapatuko partiduaren atarian.

Liga txapelketako azken partiduan, jubenil nesken eskubaloi taldea Hernaniko taldeari nagusitu zitzaion zapatuan Kiroldegian jokatutako partiduan. Gol gutxi eta joku eskaseko partidua izan arren, Edu Orga-

zen taldeak garaipena esku-ratu zuen eta sailkapeneko bigarren tokiari eutsi zion. Ligan jokatutako 10 partiduetan, bi partidu besterik ez dituzte galdu bergararrak, biak ere Bera Bera liderraren aurka hain zuzen ere.

Zapatuan Bergarak nahiko errez menderatu zuen Hernani eta atsedenaldirako 9-2ko emaitzarekin aurreratu ziren markagailuan. Jarraian jokoak behera egin zuen eta ohikoa baino gol gutxiago ikusi ahal izan ziren Labegaraietan. Etxeko-

en aldetik Olatz Manuel eta Maite Zabaleta izan genituen goletzailerik onenak, launa golekin. Aipatzekoa da baita ere Nora Madariaga gol gutxien jaso dituen atezaina izan dela aurtengo ligan. Atezain bakarra du taldeak eta zapatuan epaileak Nora bi minuturako kanporatu zuenean, Ainhoa Unamuno aritu behar izan zen ate azpian, ondo gainera.

Edu Orgaz bosgarren urtez ari da jubenil taldea entrenatzen. Zapatuan egindako jokoarekin pozik egon ez arren, taldea ligan zehar primeran aritu dela esan digu; "oso talde ona daukagu eta euskal ligan ari den Elgoibarren aurka, anaiarteko partidu batean, maila bikaina erakutsi genuen. Orain, euskal liga horretarako iguera lortzeko, Bergarako kadeeten emaitzaren menpe gaude, bi taldeon emaitzak hartzen direlako kontuan. Dena den, ez dakit interesatzen zaigun igoera lortzea".

Liga amaituta, Gipuzkoako kopa eta Federazio kopa gertatzeari ekingo dio taldeak. "Ea sorpresatxoren bat ematen dugun" esan digu Orgazek.

### ANTONIO MERINO/ Atleta

## "Euskadiko txapela janzteko gogoia dut"

**Antonio Merino (33 urte) bigarren geratu zen domekan Azepeitin jokatutako Gipuzkoako kros txapelketan, Kamel Zianiren atzetik. Orain, antzuolarra, Euskadiko txapelketa gertatzen ari da.**

**G.** Pozik 2. postuarekin?

**E.** Beti nahi izaten duzu irabaztea. Dena den, pozik nago, ez bainintzen nire puntu onenean iritsi. Urriaren izan nuen lesio batetik ez nengoen %100 emateko bezala. Irailaren azkenean, Bartzelonan, 8 km.ko lasterketa batean minutu bat ateran nien Zianiri eta Diego Garcia-ri, baina urriaren lesionatu egin nintzen eta horrek kalte egin zidan. Entrenamendu alde-

tik berde samar heldu nintzen.

**G.** Azken urteotako txapelketarik onena izan omen da.

**E.** Bai, Ziani, Diego Garcia eta hiruron arteko borroka polita izan zen. Orain sei bat urte nik Orion irabazi nuen txapelketarekin batera txapelketarik onena izan da beharbada. Orduan Apalanzari nagusitu nintzaion. Domekan banekien Ziani ni baino hobeto zegoela eta ez nuen fortzatu nahi izan.

**G.** Aurten taldez aldatu zara.

**E.** Portugalen Europako klubaren arte-

ko erdi maratoi txapelketan korritu ondoren, Adidasek ez zigun kontratua berritu ez Zianiri eta ez niri. Dezepzioa eraman nuen hasieran, baina Union Guadalajara-Acsis taldean ari gara orain eta gustora.

**G.** Orain, zer?

**E.** Hilaren 30ean Lasarten 5 kilometroko karrera egin nahi dut, handik astebetara Muski-zen izango den Euskadiko kros txapelketari begira. Azken lau urteotan azpitxapeladuna izan naiz eta txapela janzteko gogoia daukat.



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Etxea eta lursaila salgai  
Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m<sup>2</sup>ko  
ganbara. 943 76 21 80.

Antzuolan pisua salgai.  
943 76 65 65.

S. Lorentzo. 943 76 38 87.

Fraiskozuri. 943 76 54 24.

**EROSI**

Pisua erosiko nuke Zu-  
rraderon. 943 76 52 31.

**ERRENTAN EMATEKO**

Antzuola. 943 76 60 16.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Bergaran edo inguruan  
etxea alokatuko nuke.  
629 01 56 91.

Pisua hartuko nuke alo-  
kairuan. 943 76 50 77  
(Manu).

**ETXE KONPARTITUAK**

Pertsona bat behar da

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.  
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

etxe bat konpartitzeko.  
943 76 31 23.

Pertsona bat behar da  
Bolun pisua osatzeko  
943 76 08 00 (Alberto).

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Torrekuian garajea  
salgai. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Garajea salgai Torre-  
kuan. 943 76 28 24/  
39 49 78.

K. Eleizalde. 943 76 36 34.

Bolu. 943 76 19 69.

Garajea salgai edo alo-  
kairuan. 943 76 22 22.

**ERRENTAN EMATEKO**

Soto bat alokairuan  
edo salgai Matxiategin.  
166 m<sup>2</sup>. 943 76 28 09.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Garajea hartuko  
genuke. 943 76 23 68  
(Maite).

Zubiaurren garajea har-  
tuko nuke. 943 76 08 26.

**3. LOKALAK**

**SALDU**

Zubiaurren. 100 m<sup>2</sup>.  
13,5 milioi. 943 76 11 13.

Lokal bat salgai edo  
alokairuan. Bulego  
lanerako prestatuta.  
58 m<sup>2</sup>. 607 344 658.

**EROSI**

Lokal komertziala erosi

nahi nuke S. Lorentzon.  
300 m<sup>2</sup>. 607 82 53 06.

**ERRENTAN EMATEKO**

Bolun (100 m<sup>2</sup>) eta Arru-  
riagan (18m<sup>2</sup>) lokalak.  
606 96 23 80.

Mugartzeko gainean  
35 m<sup>2</sup>ko lokala alokai-  
ruan. 943 76 21 49.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Administratibo edo

idazkari lanak. Espe-  
rientzia. 943 76 35 95.

Haurrak zaindu edota  
etxeko lanak egingo  
nituzke. Esperientzia.  
943 76 72 31 (gauez).

Emakumeak etxeak  
garbitu eta edadetuak  
zaindu. 943 76 09 33.

Umeak zaindu arratsal-  
dez. 943 76 34 48 (Mayra).

Etxeko lanak, haurrak  
zaindu edo dendari lanak  
943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein laneta-  
rako gertu. 943 76 00 24.

Emakumea goizez  
lan egiteko prest.  
607 326 706.

Etxeko lanak edo plan-  
txa orduka. 943 76 54 82.

Etxeak orduka edo  
atariak. 943 76 13 46.

Txoferra lanerako prest,  
C eta C-1 gidabaimena  
eta garraioetarakoa  
dituena. 943 76 30 34.

23 urteko mutila lanerako  
gertu informatika arlo-  
an. 619 15 44 06 (Fran).

Klinika laguntzaileak  
gaixoak edo zaharrak  
zainduko lituzke.  
609 77 01 33 (Aisis).

**Tabernan lan egiteko**

**ZERBITZARIA**

**behar da**

943 76 11 86

*Sagardotegia*

**ITURRIETA**

Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
**ARAMAIO**

**Elkarte batean**

**GARBITZAILEA**

**behar da  
Autoduna.  
Presazkoa.**

262 posta-kutxa

**BERGARA**  
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Urarte 8 BERGARA  
☎ 943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77



**Matxiategi**  
**Elektragintza**  
**S.L.**

**ELEKTRIZITATE**  
**MATERIALEN**  
**SALMENTA ETA**  
**INSTALAKUNTZA**

**Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.**

**Jatetxe batean**

**GARBITZAILEA**

**behar da**

943 76 59 19



Haurrak zaindu edo dendarari lanak egingo nituzke. 943 76 54 48.

Neska eskaintzen da tabernari lanak egiteko. 943 76 71 03.

Neska astebukaeretan lan egiteko prest. 629 01 56 91.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 53 66 (Mari Cruz).

**ESKAERAK**

Neska behar da: haurrak zaindu eta etxeko lanak. 943 76 04 64.

Emakumea behar da: bi haur zaindu eta etxeko lanak. 943 76 19 16.

Etxeko lanetarako (goizez) esperientziadun neska behar da. 626 17 79 27.

Emakumea behar da: umeak zaindu eta etxeko lanak. 943 76 38 06.

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKANTZAK.**

Majisteritzan diplomatuak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Ingeles eta frantses klaseak. 943 76 33 26 (Agurtzane).

Kimikan lizentziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 42 08.

Ingeles filologian lizentziatuak ingeles klaseak. 943 76 30 28.

LH, DBH eta DBHO. Arazoak dituztenentzat. 656 75 27 39 (Ainara).

**ESKAERAK**

DBH 4.eko ikasleak ingeles klaseak hartuko lituzke. Irakasle euskalduna behar da. 943 76 55 22 (17:00etatik aurrera).

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Kawasaki Volcan motorra (500 cc.). 21.000 kilometro. 943 77 08 69.

Suzuki S1413 kotxea, 4 errobera eta lona opari. 943 78 14 72.

Suzuki motorra egoera onean. 943 76 37 83 (Jose Mari, 10:00-17:00).

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gauetz).

Ford Escort 1.300 egoera onean. 150.000 pezeta. 943 76 05 62.

Opel Ascona 2.000 i (SS-X). 943 76 41 14 (gauetz).

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Boxer arrazako txakurkumeak. 696 05 73 46.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Ekonomika, iturriko zein berogailuko ura berotzeko. 943 76 62 36.

Apalak. 943 76 25 79.

Olivetti ET-510 II idazmakina elektronikoa. Berri-berria, 10.000 PTA. 943 76 55 63.

Play stationa: 3 joku, mandoa. 943 76 52 16.

Airwalk snowboarda eta fijazioak. 943 76 45 07.

Chaman piragua, txale-

koa, pala eta kotxeko barrak. 943 77 01 74 (Felix).

Kerosenoeko estufa ia berria. 943 76 01 99.

Snowboard bota berriak, 37-38 zkia. 943 76 27 01.

NAD 716 errezeptorea, Dolby Surround eta bi baffle. 943 88 73 13.

Arrue kotxe-aulkia salgai. 943 76 07 60.

**EROSI**

Bigarren eskuko sukalde mistoa (butano-elektroko) lortu nahi nuke. Deitu 943 76 46 90 telefonora.


Bizikleta-rodilloa erosiko nuke. 943 75 23 79 (Ana).

**HARTU**

Sukalderako armairua behar dugu. 943 76 11 98.

Berogailuak behar dira familia batzuentzako, butanozkoak nahiz elektrokoak. 943 76 72 77 (Caritas).

Argazki kamera ahaztu nuen Tellamendin (Minolta Ceneton), hilaren 15ean. 943 79 37 83.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**KOMERTZIALA**  
Ibai eskumaldea. 26330/2

**INDUSTRI LISATZAILEA**  
Ibai eskumaldea. 26951/2

**FATXADAK BERRIZATZEKO LANGILEA**  
Ibai eskumaldea. 27159/2

**INDUSTRI JANTZIGINTZARAKO LANGILEA**  
Bilbo. 27185/2

**LH II, MEKANIKA**  
Tolosa. 27571/1

**LH II**  
Durangaldea. 27589/5

**SOLDADURA IRAKASLEAK**  
Debagoiena. 27382/4

**CNC TORNULARIA**  
Tolosa. 27570/1

**ILEAPAINZAILEA**  
Arratia-Nerbioi. 27290/4

**LH II, OSTALARITZA**  
Gernika-Bermeo. 27610/1

**KOMERTZIALA**  
Bilbo. 27614/1

**MEKANIKAKO INJINERU TEKNIKOA**  
Arabar Lautada. 27632/3

**INFORMATIKAN LIZENTZIATUA**  
Nafarroa. 27734/7

**INFORMATIKAN LIZENTZIATUA**  
Arabar lautada. 26590/4

**AIRE GIROTUZKO SISTEMEN MUNTATZAILEA**  
Bilbo. 26690/

**ESKAIOLISTA**  
Donostialdea. 26924/3

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

*Agirrebeña*

JATETXEA



Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi dizue bere bezero eta lagunei:

**Urtarrilaren 24tik aurrera, astelehena, zuen zerbitzura izango gaituzue berriz ere, konponketa lanak bukatu ondoren.**

Ongi etorriak guztiok!

Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

## Ehundik gora amodiozko gutun jaso dira

Karta gehienak Gipuzkoa eta Bizkaitik heldu dira, tartean 19 bergararrenak

**Aurtengoa, Amodiozko Gutunen lehiaketako VIII. edizioa da. Urtero bezala, San Balentin egunean izango da sari banaketa Kartzela Zaharrean, arratsaldeko 7etan.**

Joan zen astean amaitu zen Jardunen amodiozko gutunen lehiaketara aurkezteko epea, eta 135 gutun inguru jaso dira. Partehartzaile gehienak gipuzkoarrak, tartean 19 bergarar, eta bizkaitarrak diren arren, Euskal Herri guzitik iritsi dira gutunak.

Bi epaimahai egongo dira: alde batetik, Xabier Larrañaga izazko irabazlea, Jasone Osoro, Mikel Urdangarin eta Unai Iturriagak osatutakoa. Bigarren epaimahai bat Bergarako ikastetxe ezberdinetako ordezkariak osatzen dute: Gorka Buruaga, Itxaro Aranzabal, Nagore Davila eta Garikoitz Garitanok hain zuzen ere.

Sari-banaketa otsailaren 14an egingo da Kartzela Zaharrean arratsaldeko 7etan. Ekitaldi honetan, Aitzol Mujika



lazko sari banaketa ekitaldiko argazkia. Aurtun, astelehena da otsailaren 14a, sari banaketa eguna.

eta Ibon Larrañaga musikari bergararrak arituko dira, eta urtero bezala, irabazleak bere gutuna irakurriko du.

Gutun onenak 75.000 PTako saria jasoko du, eta bigarrenak, berriz,

40.000 PTA. Bergarar onenarentzat ere sari berezi bat egongo da, 25.000 PTAkoa azken hau. Sari hauetaz aparte, gazteek osatutako epaimahaiak ere berak aukeratutako gutuna sarituko du.



## Bergarako Orfeoi Gaztea irabazle Oreretako Abesbatzen lehiaketan

**Abenduaren 26an** Oreretako Gabonetako Abesbatzen lehiaketan Aitzol Mujikak zuzentzen duen Bergarako Orfeoi Gaztea izan zen irabazlea gazteenen kategorian, eta 50.000 PTako saria eskuratu zuen. Hiru taldek zuten ize-

na emanda, baina Tolosa eta Bergarako taldeak bakarrik aritu ziren lehiatzen, Zaurutzeko orfeoia ez baitzen aurkeztu. Epaimahaiak bergararren alde egin zuen azkenik. Orfeoia 75. urterena ospatzeko modu ezin-hobea dudarik gabe.

### ANDRES PINTURAK

Berriztatze-lanak  
Obra zuria  
Estaldurak  
Dekorazioa

Zubiaurre 19.  
943 76 14 24/689 90 53 37

### IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

### TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak  
Kazoltxoak / Txabierrak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

PELLO ALBERDI. Pintorea

## "Ez naiz estilo konkretu batekin identifikatzen"

**Pello Alberdi 41 urteko pintore elgetarra dugu. Egun hauetan, eta otsailaren 6ra arte Nahikari tabernan ditugu ikusgai eta salgai bere koadroak.**

**G.** Noiz eta nola hasi zinen pintatzen?

**E.** Gaztetatik gustatu izan zait marraztea eta pintatzea; buruan sartu zitzaidan pintatzen hasi behar nintzela eta horrelaxe hasi nintzen 18 urte ingururekin. Bartzelonan ere ibili nintzen Arte Aplikatuak ikasten. Baina dena dela, neure kontura ikasi dut dakidana. Beti ibili izan naiz marrazkitxoak eta egiten.

**G.** Ze estilo jorratzen duzu?

**E.** Egia esan, ez naiz estilo konkretu batekin identifikatzen. Handik eta hemendik ideia eta estilo ezberdinak hartu eta nahasketak egitea da gustatzen zaidana.

**G.** Artearen historia begiratuta, ze estilo eta artista dituzu gustokoen?

**E.** Beno, epoka guztietan daude gauza onak. Gazteagoa nintzenean inpresionismoa eta paisaiarekin lotutako estiloak gustatzen zitzaizkidan gehien. Orain gehiago gustatzen zaizkit kubismoa eta pop artea, besteak beste. Pintoreei dagokienean, berriz, asko dira gustoko ditudanak: Manet, Pizarro, Renoir, Picasso...

**G.** Egun hauetan Nahikarin ikusgai ditugun zure koadroak nolakoak dira? Ze estilotakoak?

**E.** Saiatzen naiz paisaiak sartzen erreferentzia moduan, baina gehiago



Pello Alberdi bere koadro baten aurrean.

dira gauza sintetikoak eta abstraktoak. Hala ere, abstrakzioetik liberatu nahi dut eta koadroetan beste gauza batzuk sartu. Horrela, adibidez, koloreekin jolasten dut, eta koadro ezberdinak elkarren ondoan jarri eta puzzle bezala osatzen ditut nire obrak.

**G.** Horrelako erakusketek izaten al dute arrakastarik?

**E.** Denetarik komentarioak egiten dizkit jendeak: bati gustatzen zaiola egiten dudana, besteak ez duela ulertzen. Jendearentzat errazagoa da betiko koadroak ikustea, bodegoiak, paisaiak...; nire koadroak ulertzea eta gustatzea zailagoa da, baina beno, bakoitzak gustatzen zaiona eta egiten dakiena egin behar du.

## Udazken Kulturala positiboki baloratu dute antolatzaileek

**Atzean utzi dugun** udazkenean, urtero bezala, kultur ekitaldi ugari izan dugu Udazken Kulturalaren barruan. Kultura Zerbitzuak ekitaldi hauen balorazio bat egin du Iñigo Alberdi zinegotziaren eskutik, eta orohar positibotzat jo du herritarren partehartzea eta erantzuna, guztira 8.000 lagun baino gehiagok parte hartu dutela azpimarratuz. Ekitaldi ezberdin asko egon da Bergaran urrian hasi eta abendura arte.

### ANTZERKIAK SEKULAKO ARRAKASTA

Besteak beste, 3 antzerki, 9 erakusketa, era guztietako 18 kontzertu, 4 hitzaldi eta Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final aurretako saio batetaz gozatzeko aukera izan dute bergararrek. Batzuk aipatzearen, erakusketen artean dinosaurioei buruzkoak izan zuen arrakastarik handiena, 1.500 herritar baino gehiagok bisitatu baitzuen. Antzerkiak erantzun oso positiboa izan du, Yllanaren "666" obrak eta Tanttakaren "Dakota" k batez ere, azken honetan sarrerak agortu zirelarik. Kontzertuei dagokienean, organu, abesbatza eta musika bandarenak dira aipagarrienak, aurreko urteekin konparatuz bikoiztu egin baita kontzertu hauetara joan direnen kopurua. Bestalde, rock-pop jaialdiak ere izan dira Jam aretoa eta Kultura Zerbitzuaren elkarlanaren ondorioz. Alberdik ekitaldi kulturalak antolatzen jarraitzeko asmoa azaldu du, eta orainarte bezalako erantzun positiboa izatea espero du.

**DENA  
100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta 3

**GASTON Y DANIELA**

Oihal batek aldatzen du dena

**BERGARA**

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

**Ezker eskuma**

1. Lotsagaldua. 2. Poztasuna. 3. Izaera. Roentgen. 4. Errepi-  
katuz, gorotza. Gar. Infin., akitu. 5. Bat. Beharra. Erdi, hitz  
elkarketan. 6. Du, hari. Nafarroako herria, Ergoienan. 7. Irra-  
ti-telebistako hizlari. Oinarrizko edaria. 8. Kontsonante  
bustia. Tamaina erdikoa. 9. Zaren horrek. Gizon izena. Hamar.  
10. Bokala. Burdinolak. Modua.


**Goitik behera**

1. Elkarlana. 2. Bihia. Tu, listu. 3. Jatorri atzizkia. Gauerokoa.  
Errepikatuz, txori-mota. 4. Intsektu-mota. Infusio mota.  
Kontsonantea. 5. Ataungoa. 6. Erregai-mota. Pl., arteria  
nagusia. 7. Bizkaiko ibaia. Pl., Sanferminetako martxa  
ezaguna. 8. Babes-eraikin. Bilo. 9. Noren atzizkia. Denboran  
jarraitu. Kontsonantea. 10. Suitzako ibaia. Bularra.

**Soluzioa**

10. Aar. Toraxa.  
9. En. Iruun. R.  
7. Asua. Hiau. 8. Bunker. Ite.  
5. Alandarra. 6. Gas. Aortak.  
3. Tar. Loa. Ka. 4. Sitsa. Te. L.  
1. Lankidetzeta. 2. Oloa. Istu.  
Goitik behera  
9. Zuk. Haul. X. 10. A. Oiak. Era.  
7. Esatari. Ur. 8. Ti. Ertaina.  
5. L. Lana. Ert. 6. Dio. Dorrao.  
3. Nostasun. R. 4. Ka. Su. Aki.  
1. Lotsagabea. 2. Alaitasuna.  
Ezker eskuma

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

**Eskailera hauek igota, zein kaletara heltzen gara?**

galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. EHuko errektore izateko hautagaietako bat bergararra dugu. Nor?  
A- Mari Karmen Garmendia  
B- Mari Karmen Garamendi  
C- Mari Karmen Gallastegi
2. Bergarako errelleno eta tostoen kofradia sortzeko lehen bilera non egin zen?  
A- Pertxa elkartean  
B- Larrañaga gozotegian  
C- Gure Ametsa elkartean
3. Zein herritako lehiaketan saritu zuten Bergarako Orfeoi Gaztea Gabonetan?  
A- Orereta  
B- Durango  
C- Tolosa



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria, **Ines Beristaintzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Inesi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Beheosin eta Sanfausto** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Carbonell**  
0,4 oliba-olioa, litroa  
**479 PTA!**  
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

**Urriak die 72 urteko arrasatear hau Bergarara etorri zala, Mari Karmen Laskurainekin ezkondu zanian. Aspaldi jubilau zan eta ez dau izan aspertzeko astirik, San Joxepeko Juntan, bertako abesbatzan, Orfeoian eta aktore be ibili dalako.**

**Hobeto bizi da jubilatuta?**

Bai, ardura barik.

**Zer botatzen dozu faltan lanetik?**

Ezebez. Nahiko lan daukat etxian eta ortuan.

**Asko etortzen zara San Joxepera?**

Kasik egunero.

**Nun egoten zara gehixago:**

**etxian ala Jubilatuetan?**

Etxian.

**Zer da zuretzat San Joxepe?**

Gauza haundi bat, batez be Diputaziñuak geuri ardura gehixago emon doskUNETIK.

**Zein ekintza antolatzen dozue**

**gustoren?**

Kultur Hamabostaldixa, horixe da gure ekintzarik inportantiena.

**Ondo pasatzen dozu zaharren artian?**

Neu be zaharra naiz ta, zeatik ez ba?

Baina gaztiekin be ondo konpontzen naiz.

**Noiztik kantuan?**

Umetatik, elizako koruan hasi nitzan.

**Zein da zure ahotsa?**

Bajua eta baritonua.

**Ahotsa zaintzen dozu?**

Ez dot ezer berezirik egitten.

**Noizko zuen hurrengo aktuaziñua?**

Santa Ageda bezperan erronda egingo dogu kalian.

**Miserablietan parte hartu ziñuan.**

Bai, borruaren papera egin neban.

**Zelako esperientzia izan zen?**

Edarra.

## Gerardo Mondragon

**Berriz egingo ziñuke?**

Bai, baiña denboria bihar da horretarako.

**Aktore be izan zara.**

Bai, Ertzainak sailian, kasting bat egin ta gero. Bergarako asko izan giñan.

**Beste zaletasunik?**

Mendira jutia.

**Dantza egittia gustatzen jatzu?**

Hortan artista eskasa naiz.

**Musian egitten dozu?**

Badakit, baiño ez dot egitten.

**Partxisian?**

Ezta be. Ez naiz jokuzalia.

**Ondo hasi dozu urtia?**

Bai, ondo.

**Zer eskatu dotsazu urte berrixari?**

Osasuna.

**Zer ekarri dotsue Erregiek?**

Klasikuak: korbatia, alkondaria...

**Gripiak jo al dau zure etxeko atia?**

Bai horixe. Urte zahar egunian.

**Ez dozu ezer egin ez harrapatzeko?**

Ez ba. Aurten ez dot bakunarik hartu.

**Asko zaintzen al dozu osasuna?**

Bai, piska bat.

**Zer egin bihar da osasuntsu**

**mantentzeko?**

Asko ibilli, juerga gutxi egin eta bizimodu sanua eruan.



# SUBIJAI

Gazteentzako moda

**%70** erainoko beherapen handiak

**Helbide aldaketa, berrikuntza lanengatik:  
orain Telesforo Aranzadi 2an gaude,  
lehen Baster zegoen tokian.**

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41





## *Antzuolako Landatxo futbol taldea, 1960*

Hona hemen 1960 urte inguruan Antzuolako baserritarrek eta kaletarrek elkarren kontra jokatu zuten futbol partiduaren atarian ateratako argazkia. Bertan agertzen direnak baserritarren Landatxo taldekoak dira, tartean arbitroa ere agertzen delarik.

Partidua desafio bezala antolatu zen eta bakailau jana izan zuten jokoan. Galtzen zutenek ordaindu behar zuten bazkaria. Esan digutenez, lehia oso gogorra eta parekatua izan zen eta, azkenean, kaletarrak nagusitu ziren gol baten aldeaz.

Partidua lehengo Antiguako futbol zelaian jokatu zen eta ikusmin handia sortu zuen herritarren artean.

Hara, bada, bertan agertzen direnen izenak ezkerretik eskumara.

**Zutik:** Asentxio Irizar, Jabier Igarza, Enrike Iturbe eta Bentura Igarza.

**Makurtuta:** Jose Luis Errasti (arbitroa), Cesareo Barrena, Felix Larrea, Lorentzo Azkarate eta Jose Mari Gabilondo.

*Argazkia: Jose Mari Gabilondo*

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



**umelaga**

JATETXEA

**54 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



**MAPFRE**

...Problemarik gabe

**Urtarrilean eta otsailean gure bulegoetara etortzearekin**



**bizikleta bat eta txirrindulari ekipoa irabaz ditzakezu**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

Zure bizi-kalitatea  
asegurutzen dugu

**Hemen dira berriz ere MultiOpticas Multifertas  
Orain familia osoarentzat.**

**Multiofertas  
MULTIOPTICAS**



Erref: B0003

*Bonardi bilduma*

Denontzat

**3.800** pta.n  
22,84 €



Erref: B0006

*Betaurrekoak*

*Armañoia + Kristalak\**

60 urtetik gorakoentzat **8.900** pta.tik aurrera  
53,49 €



Erref: GTV150

*Giulio Tabacchi betaurrekoak Armañoia + Kristalak\**

Gazteentzat

**13.900** pta.tik aurrera  
83,54 €

**EDOZEIN DISTANTZIARA ONDO IKUSTEKO**

*Lente Progresiboak*

Gurasoentzat **19.500** pta.tik aurrera  
117,20 €

\*Eskaintza honek lente zurientzat balio du (+/-4ko ESF. +/- 2ko ZIL.)



Eskaintza honek 2000-02-29ra arte balio du

**MULTIOPTICAS  
LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA



# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Zure etxeko  
sukaldea berritu eta  
altzariak jarri aurretik,  
zatoz Jakinara.

**Diseinua,**

**kalitate/prezio** erlazio

bikaina eta

**saldu osteko zerbitzu**

ezin hobea

eskaintzen dizugu.



Jakinan, gainera,  
**ZERAMIKA**  
gustu eta leku  
guztietarako



**6 URTEKO GARANTIA**

**FAGOR**   
**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak  
San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.  
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.